

uk

248. zenbakia / 2014ko martxoaren 11a



URTEAN 20€

Urtean UK aldizkariaren 20 zenbaki Urte osoan Uribe Kostan gertatzen denaren barri **Urte osoan** eskualdeko euskarazko aldizkari bakarra zure etxean **Urte osoan** argazki zahar eta barriak **Urte osoan** zure proiektuak lau haizetara **Urtean 20 euro**

uk **neuk ere gura dot** **Harpidetu eta jaso UK zure etxean, hamabostero. Urtean 20 euro.**

www.ukaldizkaria.biz **uk@aldizkaria.biz**

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea
HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337
ZUZENDARIA: Irantzu Sagaminaga
ERREDAKZIOA: Zuberioa Iturburu, Julen Nafarrate, Iker Rincon, Irantzu Sagaminaga
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILAEK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Armando Llamas, K. Olate, Amaia Arriaga, Aritz Bergara, Algortako Bertso Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIA: Laurita Siles
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)
FILMAZIOA: Parima Digital S.L. / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
 © Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

Non zer

4. PLAZA. Armando Llamas / Gu Gu
5. IRUDIA. Olatuek eroan ez dituzten kuxkuxeroen omenez
6. FACEGUK. Ibarbengoako aparkalekua erabilgarria izango da?
7. LEHEN ETA ORAIN. Portu Zaharreko orubea, 1973.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Bene Markaida.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainontzeko herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Gobela erreka.
28. ARGAZKIA. Getxo, 1954.
30. BERBETAN. Jon Sarasua.
34. FOTOGRAFIA. Jon Astorquiza.
40. SAKONEAN. Tosu landa, Ibarbengoako aparkalekua.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Plentziako Mikrofilm lehiaketa.
43. MUSIKA. Kontzertuak Sopelan.
44. LIBURUAK. Mikel Zarate lehiaketa.
45. KIROLAK. Iñaki Bidosola igerilaria.
46. MUNDUKATUAK. Leire Pelaz Lopez.
47. ZIENTZIA. "Printzea".

AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Orburua eta pernila, patata pureagaz.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Laurita Siles.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Getxo Atletismo taldea, 1965-1966.
54. AITORMENAK. Amaia Kaiero.

Azala: Jon Astorquiza

www.ukaldizkaria.biz



30 Jon Sarasua

Berbetan

Aretxabaletarrak euskaldunen euskararen poliseria, *polistikara*, itaun-go-goeta beharren eremura eroan gaitu.



11 Bene Markaida



54 Amaia Kaiero

RENAULT MÉGANE BERRIA

KOPILOTURIK ONENA

4.000€ KO EKIPAMENDUA BARNÉ

- ESKUZKO KLIMATIZAZIOA
- CDdun IRRATIA, MP3a, USBa eta BLUETOOTH®
- ESPa. ABIADURAREN ERREGULADOREA ETA MUGATZAILA
- BARRUKO ORDENAGAILUA ETA ASKOZ GEHIAGO...

11.700€* -TIK HASITA
ENERGY TCe 115CV STOP&START

Argazkiko modeloa: Renault Mégane GT-Style Energy TCe 115 S&S, PM berria (milla urria): 14.165€.

ESPAINIAN EGINA **DRIVE THE CHANGE**

Renault Mégane Berlina gama: kontsumo mistoa (l/100 km), 3,5etik 7,5era bitartekoa. CO2-aren isuria (g/km), 90etik 174ra bitartekoa.

BILBO BERRI JON ARROSPIDE, 20. TEL 94 448 39 00. DEUSTU · www.bilboberri.com
LEIOA BERRI AUTO IPARRAGIRRE HIRIBIDEA, 94. TEL 94 480 42 90. LEIOA · www.renault.es/concesion/leioaberri

aldizkaria etxean jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....
 Kalea/zenb..... Herria.....
 e-mail.....
 Telefonoa..... Mugikorra.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro
 beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito)
 □□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa, 48991 Getxo uk@aldizkaria.biz tf. 94 491 13 37

Armando Llamosas

> arkeologoa / uribekosta.wordpress.com-eko blogaria

Kultura, ahaltzuak, infantak, epaiak... hausnarketa bat

Kultura eta justizia sarritan ez datoz bat –Zer/norekin bat ote dator justizia?-. Azken asteotan garrantzi gabeko berria ezagutu dugu: Atxekolandeta kaleko auzokideek HAPOren modifikazio baten kontrako epaiketa irabazi dute, non eta Auzitegi Gorenean! Beraz, HAPOren aldaketa bertan behera geratu da. Salaketan, zaratari buruz hitz egiten zuten, gainera, garrantzitsua, Getxoko Udalari zoru publikoa pribatu bihurtzea leporatu zioten; hirigintza-teknizismoak izan arren, arrazoia zuten. HAPOren aldaketa hotela jartzeko besterik ez zen, badakigu, buruan behin sartuta...

Hotelaren proiektua bertan behera dagoenez, berriak ez du garrantzirik, baina harian, hausnarketa egin daiteke.

Hotelaren kontra talde politiko batzuk egon ziren, manifestazioren bat baino gehiago ere egin zen, sarritan partaidetza triste eta eskasa izan arren (desmobilizazio orokorrari jarraituz). Hedabideetan, Udalean eta kaleetan ere proiektuaren kontrako joera zabala izan zen. Normala zen, lanpostuen trikimailua erabili arren, leku enblematiko hori esku pribatuetan uztea ez zen jendearen gustukoa, gainera lan faraonikoen garaia pasatzen ari zen. Hala eta guztiz ere, instituzio bat ere ez zen mugitu, are gutxiago, Udala.

Bitartean, auzokide batzuek ez zuten nahi Udalak hotela jartzetik, jendez beteta, zarata, gune eskusiboa (paseatu besterik ez da behar) mundu honetako gune bihurtzen da... Esku-bidea zuten, dudarik gabe; eta haren estrategia erabiltzen zuten, ez manifestaziorik ez zarata, ezta iskanbilarik ere... haren elementu natural bat erabiltzen dute: auzia eta estatuko mekanismoak. Gainontzeko getxoztarrek, aitzitik, ez dute hain erraz. Ez dugu hitz egingo diruaz, bizitokiak dena esaten du, eta horrekin lotuta nortzuek jarri dute auzia? Zenbat arkitekto daude etxebizitza horietan, zenbat abokatu, zenbat enpresari...



Pozten gara emaitzagatik, haren irabazia gurea bada kasu horretan. Eskerrak udaleko maila soziala horrelakoa den, eta, jakina, kasu honetan helburua bera zen. Hala ere, saihestezina da pentsatzea zer erraz irabazten duten batzuek, zenbat erresorte, giltza eta gako dituzten, zer zaila den haien kontra jotzea, eta zer erraz haren ondoan bizitzea, uzten badizute.

Une berean, *gure* infanta epaitegira joan

da, eta Justiziaren aurreko berdintasunaren eztabaida ireki da. Ez da beharrezkoa Palmara joatea, bertan dugu erantzuna-eta.

HAPOren aldaketa bertan behera gertatzeak ez du orain eraginik, ordea, ondo dago gauzak bere lekuan jartzea. Pozten gara, kultura zerikusirik ez izan arren, epaiak gure alde erabakitzeagatik eta auzokide ahaltzu horiek herrian izateagatik, *de reojo* begiratu arren. ○

gu geu

Blaitu gara, beste behin

Behin eta barriro, aldiro, aldarte onean zein txarrean, indar defini gaitz eta mugaezin batek erakartzen gaitu harengana... Gureaz gainera, bere aldartearen arabera ere hurrerazten gaituena. Ito orduko aldentzen ahaleginduz une oro, baretzeraino hurbilduz, ase arte edan ezinik...

Gu, Uribe deritzon kostaldeko... Itsasoratu gara barriro!

Euskararen olatuaz arduratsu solasean, gizartearen deltaxo lupetza aberatsaz zein itsasadar kutsatuaz busti guran; bokaleko ur gazikara hauek blaituta UK honetako orrialdeok...

Uperkaririk ezean, urperatu orduko, arraun bi esku banatan, euskal portu baten bila...


UK-ko lan-taldea



Olatuak eroan ez zuena... / Negu osoa daroagu alerra-egoeran: horia, laranja... eta gorria! Isasoa erabat aztoratuta dabil eta olatu erraldoiak gainera datozkigu: olatu handien hoge surf txapelketa egiteko lain badaukagu! Alerria, baita ikuskizuna ere. Ereaga inguruan horren olatu handiak ikustea ez da-eta ohiko kontua. Eta uribekostarrak beti prest gozatzen: zira eta txanoa hartu, eta kostara hurbildu; kameragaz irudi ikaragarriak eta ederrak lortzeko. Baina gizon honek legez, guk ere tentuz ibili behar, olatuak ez harrapatzen. Negu krudela gurca, baina benetan ikusgarria! ○ / Argazkia: Asier Menteak

Auzokideen iritzia jakin gura duzu? Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak... Idatzi galdera **gure facebook**-en eta zeure partez luzatuko dugu!

Ibarbengoako parkinga egiten dutenean erabilgarria izango da?



Erromo

Xabier Antonio Arrieta

> arotza

Ez dut uste baliagarria izango denik. Bertan ikus daitekeen gauza bakarra baserriak dira eta horiek badaukate euren aparkaleku propioa. Metroa ere bertan egin behar zutenik ere ez dut ikusten. Bertan, gehiengook nahi ez ditugun eraikinak egin nahi dituzte, eta horregatik egin nahi dute hori guztia.



Erromo

Inazio Zarza

> ikaslea

Ez da beharrezkoa bertan aparkaleku bat egitea. Bertan bizi den jendeak ez du parking baten beharra. Oso jende gutxi bizi da inguru horretan, eta bertakoek ez dute parking publiko baten beharrik, are gutxiago beharrezkoa ere ez den metro geltoki baten ondoan egitea.



Erromo

Eduardo Sebastian

> geotermia teknikoa

Momentu honetan, parking horrek ez du baliorik. Ez dago etxebizitzarik, ez dago ezer bere, ez industriarik... Gainera, LZParen kontrako asanbladakoek bertan dagoen landari emandako itxura ona apurtzea ez dago ondo. Ez du ezertarako ere balio.



Sopela

Sonia Cuesta

> ikaslea

Bertan dagoen metro geltokia egiteko prozesu guztiaren ondoren ez du zentzurik bertan egin nahi dutena. Kaka bat da hori guztia, dena eraiki dute ezertarako ere. Orain parkinga egin nahi dute baina seguruenik ez du inork erabiliko. Lutxanan gertatu dena gertatuko da: geltoki mamua, jende bakoa.



Algorta

Pablo Villota

> ikaslea

Nire ustez ez da erabilgarria izango. Erabiltzailerik ekarriko ez duen gastu bat izango da. Sei milioi euro inbertituko dituzte bertan parking hori egiteko, baina ez diot erabilgarritasunik ikusten horri. Jendeak beste edozein lekutan utz dezake kotxea eta metroa hartu leku horretaraino joan beharrean.



Algorta

Eider Moreno

> ikaslea

Ez, ez da erabilgarria izango. Aparkaleku hori bertan eraiki nahi dituzten etxebizitzetara bideratuta dago, eta LZP horren kontra egoteaz gain, ez dut nahi bertan etxebizitza horietarako aparkaleku bat egitea. Gainera, nire ustez, obra horiek inguruko lurra garestitzea bakarrik ekarriko dute.



[lehen]

GETXOKO UDAL LEJURUTEGIA



[lehen]

ASERMENTXAKA

Iraganez doa denbora* beti / PORTU ZAHARREKO ORUBEA, 1973

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > itsasoaren indarra



Neguri, 2014ko otsaila

Testua: **Inazio Vidal Gurrutxaga**
Argazkia: **Asier Mentxaka**

1

Argazkikoa izaten dugu aldaketa denen patu: lasaitasuna euki ostean ekaitza behar da hartu. Haize gogorra izan genuen eta milaka olatu; itsasoaren kokalekua nahibeste dugu aldatu, baina halere bere indarra ezin dugu kontrolatu.

2

Egun horretan eman zituen fin guganako pausoak, esan dudanez indar handia duelako itsasoak. Portu askotan sortu zituen sekulako arazoak; baina halere okerragoak dira gure erasoak, gu garelako dena suntsitu gura duten marrazoak.

3

Ikus daiteke itsasontzi bat eutsi ezinez oreka eta hondartza txikia zikin milaka gauzez beteta. Nahiz eta berriz eman genuen normaltasunera buelta, hau ikusita guztiok egin behar dugu gogoeta, argazki bera berriro laster ikus dezakegu eta.

* Doinua: Azken arnasa eman nahi nuke

Uribitakoran parte hartu gura duzu?
Bidal egiguzu atal honetan
agertzea gura zenukeen argazkia
eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti!
uk@aldizkaria.biz

erakusketa > Badu Bada... Bilbon



Badu Bada. Euskara mundu eleanitzean erakusketa Bilbora heldu da Donostia, Baiona eta Gasteizen egon ostean. Etxepare Institutuagaz lankidetzan Donostiako San Telmo Museoak garatu duen ekimena maiatzaren 4ra arte ikusgai izango da Bilboko Alondegiako Jarduera Osagarrien Zentroko 1. eta 2. solairuetan. Erakusketa 10 ataletan antolatuta dute, eta besteak beste, "hizkuntzen intonazio eta azentuak en-

tzun, braille edo zeinu-hizkuntzaren kodeak ikasi, eta hizkuntzek munduan duten banaketa ikasi abal izango da. Etxepareren lehen testu hura ere ikus daiteke pantaila batean, Mikel Laboaren interpretazio baten bideo bat" ikus daitezke. Horren ondotik hainbat jarduera eta berbaldi antolatuko dituzte zenbait arlotan: zientzia, teknologia, arte biziak, literatura, gazteak, hiri-espazioa, hizkuntza-dialektoak e.a. ○

agerkaria > Bilborako uriola.info

Berton, Prest! eta Bilbo Hiria irratiak, Tokikomen laguntzagaz, "Bilbon informazioa euskaraz, digitalean eta auzolanean zabaltzen duen hedabidea" sortu dute; ondo etorri!

Arduradunek azaldu legez, "Uriola.info hedabide bat baino askoz gehiago da; plataforma bat. Bertan, Bilboko euskarazko hedabide ezberdinen informazio bateratua kontsumitu ahalko dugu eta hori gutxi ba-

litz, hiritarrek parte hartzeko eta informazioa helarazteko aukera izango dute". Beraz, euskaldun komunitateak ere hortxe du bere aukera, zabala gainera. Aurrerantzean, egunez egun, agerkaria elikatzeke ibilaldian bilbotarren bultzada garrantzitsua izango da.

Eta uribekostarrok, apurtxo batean eutsi... Gurean, hemen ere bagabiltza-eta sukalde-lanetan. ○



Info+: www.uriola.info

Info+: bostokphoto.com

argazkilaritza-saria > beste bat Lubakirentzat

Azken boladan Sopela bizileku aukeratu duen gerra argazki-kazetari Andoni Lubarik (Urretxu, 1982) beste argazkilaritza sari bat jaso du: aurtengo Picture Of the Year International lehiaketan 'Spot News' atalean bigarren postuko garaikurra emon diote, "Bombing victim" (bonbaz hildakoa) izendatutako argazkiagatik. Lubaki joan den urte akabuan elkarrizketatu genuen UK-n (244 zbk.), Chris Hondros

Memorial International sari entzutetsua jaso zuelako aitzakiak gerra kazetaritzaz, argazkilaritzaz eta bestez jarduteko aukera eskaini zigun. Horrez gainera, ezin aipatu barik itxi, Atlantako Argazki-kazetaritza Mintegiak "Best in Show" ataletan lehengo saria eman ziola iaz urretxuarrari "Syria civil war" (Siria gerra zibila) bildumagatik. Bejondeizula, Andoni! ○

Info+: ap.org/company/awards/photo-awards

saiazgetaria



HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa



...harria

...lehengo garaiak...

...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

Emaiozu euskara

Familia bidezko
euskararen
jarraipena
bultzatzeko
kanpaina



Zure seme-alabak euskara
osasuntsu eta aberatsean
hazi daitezen, aditu guztiak
bat datoz esatean familia dela
haurrak behar dituen
elikagaiak ondoen eskaintzen
dizkion giroa



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAKULARITZA
GOBIERNO VASCO
EUSKARA BIZI
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Basque Government of Language

euskaraz hazi eta bizi dadin

<http://www.getxo.net/euskara>



Getxo
bizi ezozan



"Sopelako eskolan ur tanta bat izan ginen, erdal itsaso batean"

Bene Markaida Basterretxea > euskaltzale eta herrizalea

Plazera. Plazer hutsa da Bene Markaida sopoloztarragaz berba egitea. Kontularia, umila, maitakorra, euskaltzalea... eta berak dioen legez, "herrizalea". Altxor bat. Artadi inguruko Sagondo Goikoa baserriko alaba, herrian "Bene" deitzen badotsie bere, izen nabarmen luzeagoa du: "Amamaren izena dekot oso-osorik: 'Petra Benedicta', eta ez dekot batere lotsarik esaten, ohore handi da niretzat holako izen inportante bat eukitea". Txiki-txikitatik jaso zuen euskararekiko maitasuna. Bere aitak, berbarako, honakoa esaten zien: "Aste duztin erderarik entzuten ez dotsetanari domekan hogerleko bat emongotset". Frankismoa amaitu zenean, 40 urte zituela, Hizkuntza Eskolara joan zen, euskaraz alfabetatzera, euskaldun peto-petoak ziren arren: "Lehenengo promozioa izan ginen, probatxu bat egin, eta 4.mailan sartu ginduezan". Titulua eskuratu, eskola penaz utzi, eta magisteritza ikasi zuen Euskal Filologia adarretik, lehenengo promozioan ere: "44 urteaz hasi eta 47az akabatu; 18 urtetan egin nuen behar eskoletan". Sopelako eskolan 1982. urtean hasi eta 46 irakasletik, euskaldunak bi baino ez ziren: "Ur tanta bat izan ginen, erdal itsaso batean". Sopela-Sopelana eztabaidan ere, bere iritzia izan du beti Benek, eta Udalak martxoaren 16an antolatutako kantaldian izango da: "Euskaraz beti Sopela esan dugu, eta erderaz, Sopelana". Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Julen Nafarrate**

Kultur etxea gora eta behera

Gobernu-taldeak proposatu du **Romoko** oraingo **udal-euskaltegia** eta **nagusien etxea** dauden lekuan **Babes Ofizialeko Etxebizitzak** eraikitzea; **auzokideek protestaka** jarraitzen dute

Romoko Auzokide-elkartek deituta, **dozenaka** **auzokide** joan zen otsaileko **Osoko Bilkurara**, **Romo kultur etxearen** proiektuaren **aurkakotasuna** adieraztera. **Getxoko** **gobernu-taldeak** bere proiektua defendatu zuen, eta **gainera**, **nagusien etxea** eta **udal-euskaltegia** dauden **lekuan Babes Ofizialeko Etxebizitzak** eta **tutoretzapeko apartamentuak** eraikitzea **proposatu du**. **Bitartean**, **mozio bi onartu ziren** **Udalbatzan** egungo proiektuaren aurka.

Ez dago adostasunik. Getxoko **gobernu-taldeak** Romo kultur etxerako proiektuagaz aurrera jarraitzen du, eta **auzokideak** protestaka. Horren lekuko dira **gobernu-taldearen** proposamen barria eta **romotarren** manifestazioak.

Azken **Osoko Bilkuran**, **kultur etxearen** egungo proiektua aldatzeko eskatzen zuten **mozio bi onartu zituen** **Udalbatzak**. **Mozio guztiak** legez, **lekukotasunezkoak** izan ziren, ez dituzte zertan bete. **Udaletxera** **Romoko** **dozenaka** **auzokide** **hurbildu** zen, **protesta** egitera. **Aldarrikatzen** dute **etorkizuneko** **eraikinari** **solairu bi kentzea** (**udal-euskaltegi** eta **nagusien etxe** **barriei** **legozkienak**), **zazpi** **pisutik** **bostera** **jaitsiz**, eta **kanpoko** **estalkia** **ez ipintzea**. **Hartara**, **“bi milioi euro aurreztuko”** **lirateke** (**aurrekontua** **zortzi** **milioio** **da**). **Kalera** **ere** **atar** **dute** **protesta** **eta** **ehunka** **lagun** **bildu** **da** **orain** **arte** **egindako** **manifestazio** **bietan**. **Erreferenduma** **egiteko** **ere** **eskatu** **dute**.



Romoko nagusien etxea eta udal euskaltegia

Baina **gobernu-taldea** bere proiektuagaz aurrera doa. **Dioenez**, **udal-euskaltegiaren** eta **nagusien etxeko** **eraikinak** **barritzea** **garestiago** **litzateke**: **jarduera** **biak** **egiteko** (**eraikinak** **zaharbarritu** **eta** **kultur etxe** **barria** **eraiki** **–bi** **solairu** **kenduta**–), **“Gobernu-taldeak erakusten du gizartearen beharrak entzuten dituela eta erantzuten saiatzen dela”**

“guztira 12 milioi euro inbertitu beharko linateke”. **Auzokide-elkartek** **uste** **du** **udal-gobernua** **gezurretan** **ari** **dela**.

Bestalde, **“higiezinekin espekulazioen inguruko zalantzen”** **aurrean**, **udal-gobernuak** **proposatu** **du** **aipatu** **eraikinak** **dauden** **tokian** **Babes Ofizialeko Etxebizitzak** **eta** **tutoretzapeko apartamentuak** **eraiki-**

tzeta. **Imanol Landa** **alkateak** **prentsaurerako** **batean** **esan** **zuen**, **proiektua** **“legezkoa da, instituzio eta gizartearen aldetik, parte-hartzailea, eraginkorra izateko eta baliabide publikoak optimizatzeko diseinatua, baina batez ere beharrezkoa”** **eta**, **“horrela, berriz erakusten dugu gobernu-taldeak gizartearen beharrak entzuten dituela eta, ahal dela, erantzuna ematen saiatzen dela”**. **Gaineratu** **zuen** **Udalaren** **etorkizun ekonomikoa** **“hipotekatuko ez”** **duela**, **“berezko diru-sarrerekin finantzatuko delako, hau da, ez duelako zor berririk eragingo”**.

Auzokideek **“susmagarri”** **deritzote** **BOEn** **proposamen** **horri**, **lehen** **manifestazioaren** **ostean** **aurkeztu** **zutelako**. **Protestaldi** **gehiago** **iragarri** **dituzte**. ○

Info+: www.getxo.net eta vecinosderomo.blogspot.com

Aberastasuna eta lana

Ekonomia sustatzeko plana osatzen ari dira



Sustatzeko arlo estrategikoen artean hautatu dute bizitza osasungarria eta kirola

“Getxo udalerrri jasangarriago gisa bultzatzea, aberastasuna eta kalitatezko enplegua sortzeko gai den udalerrri gisa”; horixe da **helburua**. **Horretarako**, **Getxoko ekonomia** **sustapenerako arlo estrategikoak aurkitzeko diagnostikoa** **enkargatu** **zuen** **Getxolanek**, **eta** **otsail** **erdialdean** **aurkeztu** **zituzten** **emaitzak**.

Zazpi **arlo** **strategiko** **identifikatu** **zizuten** **eta** **horietatik** **hiru** **lehenetsi**. **Horiek** **dira**: **lehena**, **ongizateagaz**, **bizitza** **osasungarriagaz** **eta** **kirolagaz** **lotutako** **enpresa-ekimen** **barriztaileak**; **bigarrena**, **sormenaren** **eta** **kulturaren** **industriak**; **eta**, **hirugarrena**, **arlo** **bi** **horiekaz** **lotutako** **turismoa**. **Era** **berean**, **zeharkako** **beste** **sektore** **batzuen** **sustapena** **ere** **indartu** **gura** **dute**; **hala** **nola**, **teknologia** **barriak**, **zerbitzu** **aurreratuak**, **merkataritza** **eta** **ostalaritza**.

Info+: www.getxo.net/eu/getxolan

Prozesu **horretan**, **Getxoko** **ekonomia** **sustapenean** **inplikaturako** **eragileakaz** **60** **elkarriketa** **egin** **dituzte**, **“udalerriko lehiakortasuna ikertzeko eta aztertzeko”**, **baita** **hainbat** **aurkezpen** **eta** **tailer** **ere**. **Horie** **tan** **parte** **hartu** **dute**: **udal-arloek**; **eragile** **publikoek** **eta** **pribatuek**; **ekintzaile**, **enpresari** **eta** **hainbat** **enpresatako** **ordezkariak**; **eta** **oposizio** **alderdi** **politikoe** **eta** **herrarrek**.

Proiektuaren **bigarren** **faseari** **dagokio** **diagnostikoa**. **Hirugarren** **eta** **azken** **fasean**, **barriz**, **arlo** **strategiko** **bakoitzarentzako** **ekonomia-sustapenerako** **ekintza-plan** **ban** **proposatuko** **dute**. **Gainera**, **berarizko** **lan-taldeak** **sortuko** **dituzte** **eta** **bertan** **parte** **hartuko** **dute**: **inplikaturako** **udal-arloek**, **agenteek** **eta** **adituek**. ○

GETXOAKTIBATU! JARDUERAN IZENA EMON

GETXOAKTIBATU! **programaren** **bigarren** **denboraldirako** **jarduera-proposamenak** **aurkez** **ditzakete**, **daborduko**, **udalerriko** **saltokiek**, **profesionalek**, **ostalaritza-zentroek** **zein** **herrarrek**. **GETXOAKTIBATU!** **Ekimenaren** **helburuak** **ondokoak** **dira**: **tokiko** **merkataritza-ardatzak** **eta** **negozio-jarduerak** **dinamizatzea**; **eta** **doako** **sare** **baten** **bitartez** **tokiko** **talentua** **ikusaraztea**, **zertarako** **eta** **esperientzia**, **ezagutza**, **kultura**, **kirola** **eta** **aisialdi** **osasungarriko** **proposamenak** **trukatzeko**. **Beraz**, **ekintzak** **eskaini** **edo** **hartu** **gura** **duten** **guztiak** **ipin** **daitezke** **harremanetan** **programako** **koordinazio-taldeagaz**: **944 660 140** **eta** **getxoaktibatu@getxo.net**.

Info+: www.getxo.net

BERDINTASUNA SUSTATZEKO LAGUNTZA

Getxon **“gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko jardueretarako”** **diru-laguntzak** **eska** **daitezke** **martxoaren** **24ra** **arte**. **Helburu** **orokorrak** **dira**: **“emakumeen parte-hartzea** **sustatzea** **eremu** **guztietan**, **eta** **emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko programak eta proiektuak laguntzea”**. **Eskaerak** **aurkez** **daitezke** **udaletxean** **eta** **Herritarren Arretarako Bulegoetan**. **Informazio** **guztia**, **diru-laguntzen** **oinarriak** **eta** **eskaera-orria** **dauzkazu** **Getxoko** **Udalaren** **webgunean**.

Info+: www.getxo.net/eu/igualdad

INDEPENDENTZIARI BURUZ MAHAINGURUA

Martxoaren **19rako** **mahaingurua** **antolatu** **du** **Bolivartiar** **Ikaskuntza** **elkartek**, **ondoko** **izenburuagaz**: **Catalunya-Nabarra** **eta** **la independencía**. **Parte** **hartuko** **dute** **Xabier Ezeizabarrena**, **Hector Lopez Bofil**, **Tomas Urzainqui** **eta** **Mario Zubiagak**. **Moderatzaile** **lanetan** **jarungo** **da** **Itxaso Paia**. **Algortako** **Villamonte** **kultur** **etxean** **izango** **da**, **19:00etatik** **aurrera**.

Info+: www.bolibar.org

MR TALLER MECANICO
Coches, Motores Marinos y Fuerabordas
Mola guztiak konponketak: Azterketak, Gurpilak, Indargeltzaileak, Soinua...
Tf. 94 430 17 81
Bidezabal Kalea 9
48993 GETXO

EGUNKARIAK
prentsa eta aldizkariak
gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!
Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

Xabi Paya Ruiz > bertsolaria eta itzultzailea

“Orain idatziak ere aldarrikatuko du ahozkoan aberatsak garela”



Liburua deskarga daiteke Etxepare Euskal Institutuaren webgunetik: www.etxepareinstitutua.net

Ahozko Euskal Literaturaren Antologia osatu du Xabi Paya Ruizek. Ahozko literatura aztertu du, “haizeak eraman ez zuena” jaso asmoz; zortzi genero ardatz hartu ditu: bertsolaritza, koplak, genero epiko-liriko, herri-antzerkia, heziketa-generoa, egunerokoak, genero errituala eta genero aplikatuak. Liburua euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez idatzi du eta, beraz, bertsoak, ipuinak eta bestelakoak lehenengoz itzuli dira beste hizkuntza batzuetara. Daborduko erreferentziatzko lantzat dauka askok, etorkizuneko ikerketetarako oinarritzat.

—Izena duena ba ei da, baina idatzita ez dagoena?

—Berez ez omen da, eta akaso, begien aurrean daukagun edo mingainean dantzau daukagun aberastasun izugarriari nola izenik ez diogun jartzen, ez diogu ematen behar den balioa. Hori esaten duenak kultura-mota bat aldarrikatzen du akaso, eta idatziaren kulturatik erreparatzen diola, idatzia lehen mailan jarrita. Aldiz, ahozkotasanaren ikertzaileek esaten dutenez, kontuan hartzen badugu gizakia berez, sortzez ahozkoa dela, ohartu-

ko gara, momentu jakin batean, gizakiari buruan gauza gehiago kabitu ez zitzaionean, hori dena burutik beste leku batera pasa behar izan zuenean, bi aukera izan zituela: bata izan zitekeen idatzira pasatzea eta modu artifizial bat sortzea memoriari eusteko; eta bestea izan zitekeen, memoriaren lanketaren bitartez ahozkotasanari heltzea, ahozko generoak erabilita. Gaur egun ez dago euskal kulturarik idatzitakoaren eragina ez duenik, baina pentsatzekoa da, gurea bezalako kultura batek, hain zaharra eta indartsua izan

zenak, akaso, hasieran ahozkoari heldu ziola gehiago.

—Batzuentzat lan hau harribitxia da, lan erreferentziala.

—Gorritu nintzen aurkezpenean, baina balorazio oso positiboak jaso ditut. Niretzako mugarrria izan daiteke liburua eta pozik nago. Ikusiko dugu denborak non jartzen duen, ez dagokit niri esatea.

«Pentsatzekoa da sortzez, gure kulturak ahozkoari heldu ziola gehiago»

—Ikerketarako oinarri izan liteke?

—Dudarik gabe. Ikerketa honek agerian uzten ditu ezinbestekoak izan daitezkeen eztabaida batzuk. Ahozkotatua, edo ahozko literatura, edo ahozko tradizioa, edo herri-literatura, edo herri-folkloreari, hainbeste izen dituen gai berberari, behingoz denok elkarrekin begiratu beharko diogula, eta erabaki nola deitu behar zaion, zeintzuk genero izan behar dituen, e.a. Hau proposamen bat da, baina euskal literaturak izan ditzakeen aberastasan guztiak kontuan hartuta.

—Gaztelaniaz eta ingelesez ere egin duzu liburua.

—Horixe da nobedade handietako bat: euskal ahozko tradizioan dauden kantuak eta guk asko ezagutzen ditugunak orain arte inork ez ditu eman, ez gaztelaniaz, ez ingelesez. Adibidez, “*ari naizela, ari naizela, hor ikusten dut Txirrita*”; baina esataria zertan ari zen? Beraz, nola esan behar da hori ingelesez eta gaztelaniaz? Nahiko eztabaida da. Kantu asko daude kantatzen ditugunak baina ez dakigula zehazki zer esaten dugun, iltzatutako egiturak daude eta horrek ahalegina eskatu du, baina behintzat, orain idatziak ere aldarrikatuko du ahozkoan aberatsak garela. ○

Gaztaren usain gozoa

Hamar urte bete du **Gazta-Azokak** eta martxoaren **20tik 23ra** egingo da **Algortan**



Algortako Geltokia plazan ipiniko dute Azoka, urtero legez

X. Gazta-Azoka izango da martxoaren 20tik 23ra bitartean, ohi legez, Algortako Geltokia plazan. Behi, ahuntz eta ardi esnez egindako gazta gozoak dastatu eta erosi ahalko dira.

Batzuk Euskal Herrikoak eta besteak kanpotik ekarritakoak. Beraz, Idiazabal edota Erronkari motako gaztakaz batera probatu ahalko dira Frantzia, Suitza, Herrialde Katalanak, Italia, Gaztela eta Leon, Gaztela-Mantxa, Galizia eta abarretako gutziak: Casarreko opila, titi-gazta, Kantabriako gazta, Montbru (Katalunia), Guarako ardi-gazta (Aragoi), Valsequillo (Kanaria Uharteak); 18 postu ipiniko di-

tuzte eta ekoizleei zuzenean erosi ahalko zaizkie gaztak eta produktuak. Izan ere, gaztatik eratorritako beste hainbat jaki probatzeko eta eskuratzeko parada egongo da; berbarako: gazta-krema.

Eta denek izango dute aukera hori, izan ere, ordutegi zabala izango du azokak: goizez, 11:00etatik 14:30era bisitatu ahalko dira postuak eta, arrastiz, 17:00etatik 21:30era. Daborduko iritsiko ziztaizun sudurrera jakion lurrin gozoa. Baietz bisitariz bete Geltokia plaza, baina adi eta bizkor ibili beharko dute, saguek gazta guztia jan baino lehen! ○

Info+: www.getxo.net

EUSKARA ZERBITZUAREN DIRU-LAGUNTZAK

Getxoko Euskara Zerbitzuak diru-laguntza deialdiak argitaratu ditu. Hainbat motatakoak dira. Batetik, baliabide ekonomikorik ez dutenek, euskara ikasteko laguntza eska dezakete irailaren 30era arte. Ondokoek, barriz, abenduaren 31ra arte eska dezakete laguntza: gida-baimena lortzeko azterketa euskaraz egingo dutenek, aisialdiko begirale eta zuzendari agiria lortzeko euskarazko ikastaroetan parte hartuko dutenek, eta errotuluak, toloak eta ibilgailu komertzialak euskaraz ipiniko dituztenek. Informazio osoa emongo dizute Euskara Zerbitzuan (Basagoiti, 20).

Info+: www.getxo.net

ARGAZKIGINTZA IKASTAROAK ALGORTAN

Algortako Kultur Etxearen argazkigintza-ikastaroetan izena emoteko epea zabaldu dute. Ikastaro bi izango dira, lehenengo eta bigarren mailan banatu dituzte. Lehenengo maila apirilaren 7tik ekainaren 9ra emongo dute, astelehenero eta txanda bitan: 18:00etatik 20:00etara eta 20:00etatik 22:00etara. Bigarren maila, barriz, eguaztenetan izango da; talde bakarra osatuko dute eta klase emongo dute 19:00etatik 21:00etara. Guztira, zazpi saio teoriko eta hiru urteera egingo dituzte. Ezinbestekoa da reflex-kamera digitala (edo parekoa) eroatea eta 60 euro ordaindu behar da. Algorta edo Romoko kultur etxeetan emon daiteke izena.

Info+: 944 914 080 eta tallesaula@getxo.net

EUSKAL AKUARELARIEN ERAKUSKETA TORRENEAN

Martxoaren 19tik apirilaren 6ra ikusi ahalko da Euskal Akuarelarien elkarteko erakusketa Algortako Torre-aretoan. Elkarteak 70etik gora urte dauka eta akuarela modalitate desberdinak lantzen dituzte bere kideek. Horixe bera erakutsiko dute Algortan: klasikotik modernora, figuratibotik abstraktura, gai anitz hartuta.

Info+: www.getxo.net

lagusana
liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
gusanalibreria@gmail.com

Oaztargi kuadrilla > mozorro-lehiaketako irabazleak

“Ideia on bat aukeratzea da garrantzitsuena: ideia-jasa ariketa egiten dugu, bozkatu eta aukeratu”

Otsailaren 28an ospatu ziren inauteriak Leioan. Erromeria egon zen Ikea Barri plazan, baita mozorro-lehiaketa ere, urtero legez. Aurten Oaztargi kuadrillak irabazi du taldekako lehiaketa: lehiaketan parte hartzen dutenetik, orain lau urte, hirugarren aldia da irabazten dutena.

—Zorionak, kuadrilla!

—Eskerririk asko! Poztasun handia sentitzen dugu irabazi dugulako.

—Zertaz mozorrotu zarete?

—Panpinez; Oaztargiko panpinak gara. Trapuzko panpinak, panpin zaharrak, betikoak; 15 lagun gara. Kartoizko kutxa erraldoia ere egin dugu, eta panpinetako bat barruan sartu: mozorro osoa izan da. Lehengo jolasak ekarri gura izan ditugu gogora. Ideiak bilatzen hasi ginen eta irudititu zitzaigun ikusgarria izan zitekeela, koloretsua eta alaia: inauterietarako aukera aproposa, duda barik.

—Zuek egin duzue mozorroa?

—Bai, dana egin dugu guk eta eskuz, ile-ordeetatik hasi eta jantziatar. Ilean arteak artilezkoak dira, bakoitza kolore batekoa, eta horiek ere eskuz egin ditugu: ez dira erositakoak. Eta jantzien oihala, berbera bada ere, jantzi danak dira desberdinak.



Oaztargi kuadrilla, saria jaso ostean

—Zer irabazi duzue eta zer egingo duzue sariagaz?

—Bazkari edo afaria bat egiteko 400 euro irabazi dugu, Leioako jatetxe batean gastatzeko. Eta horixe egingo dugu: xahutu. Koadrila-afaria edo bazkaria egingo dugu, oraindino ez dugu aukeratu jatetxea.

—Normalean parte hartzen duzue Leioako mozorro-lehiaketan? Noiztik?

—Leioakoak gara eta duela lau urte hasi ginen eta urtero parte hartzen dugu. Gai-

nera, hiru aldiz irabazi dugu lehenengo saria! Asko gustuko dugu mozorrotzea eta, horretarako, zein aitzakia hobe inauteriak baino?

—Hurrengoan zaila izango da hobetzea?

—Hurrengo, sorpresa! Hori beti da zaila, baina urtero-urtero hobetzen saiatzen gara. Hilabete lehenago hasten gara prestatzen, ideia on bat aukeratzea da garrantzitsuena: ideia-jasa ariketa egiten dugu, gero bozkatu eta aukeratu dugu. ○

Leioako Mendi-Astea

Martxoaren 10etik 14ra izango da eta **bere baitan** egingo da **Mendi-Tour** festibala



Climbing Party Girl ekimenaren aurreko ekitaldi bat

Zinema, hitzaldi eta eskalada izango dira Leioako Mendi-Astearen baitan, martxoaren 10etik 14ra, Kultur Leioan. Leioa Mendi-Taldeak antolatzen du ekimena eta egitarauaren barruan dago Mendi-Tour zinema-festibala.

Hain zuzen ere, mendiari buruzko zinema-festibalak abiatuko du Mendi-Astea. Egun bitan garatuko da Mendi-Tour eta 20:00etan hasiko dira emanaldiak. Hilaren 10ean proiektatuko dituzte *Cascada*, *Petit Bus Rouge* eta *Cerro Torre* film laburrak. Martxoaren 12an, barriz, *North of the Sun*, *High Tension* eta *Crossing the ice*. Egun bakoitzerako sarreak 3 euro balio ditu eta egun bietarako bonuek 5 euro. Besteren artean, Alex Txiki-

kon mendigoizalea izango da Leioan egun horretan.

Baina bestelakoak ere antolatu dituzte Mendi-Asterako. Berbarako, martxoaren 11n, III Climbing Party Girl egingo dute: emakumezko eskalatzailerak ezagunak hurbilduko dira Sakonetako *boulder*-era.

Hilaren 13an, barriz, Milla Gallastegi eta Asier Aranzabalen *El Himalaya desconocido de Cachemira y Ladakh* dokumentala emongo dute. Azkenik, martxoaren 14an, goi-mendietarako oinarritzko osasun-zainketari buruz jardungo da Nerea Zabala Bilboko Club Alpino taldeko kidea. Horiek biak ere 20:00etan hasiko dira eta sartzera doakoa izango da. ○

Info+: www.getxo.net

MINTZODROMOA MARTXOAREN 19AN

Berbalagun egitasmoak Leioako I. Mintzodromoa antolatu du martxoaren 19rako, eguaztenerako. Ekimenaren helburua da herriko euskaldunak elkartzea, hainbat gairi buruz euskaraz jarduteko. Sakoneta kiroldegian ipini dute hitzordua eta saio bi egingo dituzte: 10:00etan eta 18:30ean. Martxoaren 14a baino lehen emon behar da izena Mastitxu udal-euskaltegian (944 640 002), Lamia AEK euskaltegian (944 646 063), edo leioa_berba@aek.org helbidera mezua igorritik. Aupa, leioaztar! Erdu euskarara! Erdu Mintzodromora!

Info+: www.leioaberba.blogspot.com

MUSIKA, ANTZERKIA ETA DANTZA KULTUR LEIOAN

Martxoko bigarren hamabostaldian ere egongo da zer ikusi Kultur Leioan. Hilaren 14an, *Juana, la reina que no quiso reinar* obra antzetzuko du Andaluziako Histrión taldeak; emanaldia 20:30ean hasiko da eta sartzera 10 euro ordaindu behar da. Martxoaren 21ean, Neighbor taldeak kontzertua emongo du 22:00etan; euskaldun eta estatubatuar bikote batek osatzen du taldea eta sarrera 10 euroan kobratuko dute. Hilaren 28an, *Facil* dantza-ikuskizuna eskainiko du Cielo Raso euskal taldeak, 20:30ean eta 10 euroren truke. Eta martxoaren 30ean, *Elmer elefantea* antzetzuko du Teatro de la Luna konpainiak, 18:00etan eta 5 euroren truke.

Sarrerak eta info+: www.kulturleioa.com

GAZTETAN LEHIAKETA, APIRILAREN 4RA ARTE

XV. Gaztetan lehiaketara lanak aurkez daitezke apirilaren 25era arte, Kultur Leioan (Jose Ramon Aketxe, 11). Kontakizunen lehiaketa da eta lau mailatan banatuta dago, adinaren arabera. Idazlanak aurkez daitezke euskaraz zein gaztelaniaz. Sariak ekainearren 6an emotea aurreikusten dute Kultur Leioako hitzaldi-aretoan, 19:30ean.

Info+: www.kulturleioa.com



Denboraldi berriko arropa prezio paregabeetan

Ibaiondo 7, 48930 Erromo-Getxo Tf. 94 656 21 57



Luberr Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandoio (Blzkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf. :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberr@euskalnet.net
www.luberr.biz

- Soropila ezartzea

Lurzorua prestatzeko lanak, drainatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarrizte lanak eta ereite lanak.

- Seropila zaintzea eta mantentzea

Moztea, ureztatzea, ongarrizte, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.

- Inausketak

Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inauteriaren erabateko inausketak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

[erandio]

Jesus Ibarra > Difusa kultur elkarteko kidea

“Antzerki herritarra egingo dugu Martiartuko dorrea-ri buruz, erandioztarrak casting bitartez aukeratuz”

El señor de Martiartu antzeulanerako aktore amateur bila dabilta Difusa elkarteko lagunak, erandioztarren artean. Castinga egingo dute martxoaren 27an eta 28an eta herritarrak animatu dituzte parte hartzera, eurak ere amateur dira-eta. Ekainean izango da antzezpena.

—Zertan datza ekimen berezi hau?
—Jatorria beste antzeppen bat da, duela urte bi egin genuena. Lagun-talde bat Burgosera joan ginen Clunia Sulpicia antzeztoki erromatarra ezagutzera, eta bertan antzerki bat egiteko zorakeria otu zitzaigun. Ez ginen antzerkian ibilitakoak, baina apurka lortu genuen ideari forma emotea. Burgosen eta Erandion antzeztu genuen obra. Bertako kultur koordinatzaileagaz hitz egiten sortu zen Erandiorako ideia.
—Eta zer obra ari zarete prestatzen?
—Burgoskoaren antzeko zer edo zer egi-tea pentsatu genuen, baina Martiartu dorreagaz lotuta. Fikzioa da, eta XIII. eta XIV. mendeetan kokatzen da, oinaztarren eta ganboarren arteko liskar-garaian. Komedia da eta guk geuk sortu dugu gidoia. Berrogei pertsonako taldea gara, bizkaitarrak, baina ekimen herritarragoa egin gura dugu. Horregatik antolatu dugu cas-



Ekimena azaltzeko hitzaldiak egingo dituzte martxoaren 18an eta 19an

tinga, erandioztarrek ere parte har dezaten; nagusiei zuzenduta dago bereziki. Martxoaren 27an eta 28an egingo dugu, Alzagako azoka zaharrean, 18:00etan. Baina, aurretik, hitzaldi bana egingo dugu Alzagan eta Astrabudian, ekimenaren nondik norakoak azaltzeko herritarrei: martxoaren 18an eta 19an, hurrenez hurren. Pentsatu dugu sei-zortzi pertsona hartzea. Antzezpena, barriz, ekain akabuan izango da.

—Zer behar da parte hartzeko?

—Batez ere gogoia. Ez dadila inor izutu, castinga nahiko sinplea izango da-eta: gogoratzea gu ere ez geundela tulara igota Burgosko antzezpena egin aurretik. Hala ere, jakin dezatela lana bai, lana eskatuko duela. Lan handia da eta ordaina izango da egitearen beraren assetasuna. Gainera, prozesua oso interesgarria da eta primeran pasako dugu. Guk geuk sortuko eta zuzenduko dugu dena: gidoia, arropa, agertokia, e.a. Ez daukagu profesionalen laguntzarik, eskulana da. ○

Euskarari laguntzeko

Erandioko Euskara-Zerbitzuak epea zabaldu du **diru-laguntzak** eskatzeko



Saltokietako errotuluak euskaraz ipintzeko laguntza ere emongo dute

Euskara-Zerbitzuak hainbat diru-laguntzatarako deialdiak zabaldu ditu 2014 honetarako. Batetik, euskara ikasteko laguntza eska daiteke daborduko, oraindik eta abuztuaren 11ra arte, betiere 2013/14 ikasturterako.

Bestalde, euskaraz egiten diren edo berau sustatzeko ekimenakaz lotuta dauden laguntzak ere eska daitezke. Berbarako, gidabaimena lortzeko proba teorikoa euskaraz egitea lagunduko dute eta eskaerak aurkeztu behar dira martxoaren 28tik abenduaren 19ra.

Saltokiei begira ere badago laguntzarik; hain zuzen ere, kanpoko errotulazioa

euskaraz, edo euskaraz eta gaztelaniaz ipintzea diruz lagunduko du Udalak. Eskaerak aurkeztu behar dira abenduaren 15a baino lehen.

Azkenik, gure hizkuntzaren erabilera bultzatzeko ekimenetarako laguntzak emongo dituzte. Zehazki, euskara sustatzeko ekintzak garatzen dituzten herriko elkarte, guraso-elkarte eta ikastetxeei zuzenduta dago azken deialdi hori: elkarteek, apirilaren 1etik 30era aurkeztu behar dituzte eskaerak; guraso-elkarteek eta ikastetxeek, barriz, irailaren 1etik urriaren 16ra (datorren ikasturte hasieran). ○

Info+: www.erandiokoeuskarazerbitzua.com

KONTZERTUA VERDIREN OMENEZ, HILAREN 15EAN

Giusseppe Verdi (Le Roncole, Busseto, 1813 – Milan, 1901) musikagile italiarra omenduko dute Opera Divertimentok eta Orpheo ganbera-abesbatzak martxoaren 15ean, kontzertu batez. Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean izango da, 20:00etan; sarrerak eros daitezke 3 euroan. Opera-konpositore handienetakoa izan zen Verdi: *Aida*, *Rigoletto*, *Il Trovatore* edo *La Traviata* bezalako operak sortu zituen, eta *Macbeth* eta *Otello* Shakespeare lanak musikatu zituen. Politikoki, *risorgimento* delakoaren ikur (Italiako batasuna sortzeko pertsona garrantzitsutzat daukate).

Info+: www.erandio.net

LABURBIRA ERANDION, MARTXOAREN 27AN

Tartanga ikastetxean egingo da aurten Laburbira euskarazko film laburren emanaldia Erandion, martxoaren 27an, 19:00etan. Ondoko filmak emongo dituzte: *Abuztua*, *Aio*, *Euskaldun berriaren esketxa*, *Iruki mintzatuen hiztegi poetikoa*, *Marilyn*, *Plaza bakarra* eta *Sormenaren bide ezkutuak*. Azken film hori egin du Lara Izagirrek eta emanaldiaren osteko solasaldian parte hartuko du. Topaguneak antolatzen du ekimena eta Euskal Herriko hainbat herri bisitatuko ditu.

Info+: topagunea.org/laburbira

ALTZAGAN ANTZEZTUKO DUTE GUERNICA 1913

Fermin Larragoikoa eta Justina Garateren etxean egun jakin batean izandako gertakariak kontatzen ditu *Guernica 1913* antzezlanak: bikotea Gernikara joan da bizitzera Arrate alabagaz batera, *Esperanza* y *Unceta* fabrika Eibartik hara lekualdatu ostean; greba luze bateko azken eguna dugu obran kontatutakoa. Alzagako azoka zaharrean antzeztuko du lana Banarte antzerki-taldeak, martxoaren 22an eta 20:00etan. Sarrerak 3 euro balio du.

Info+: www.erandio.net

GARAIZAR
BARRIKUNTZAK

ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALAK

Tf-944305243/ 607952977-6 regaraizar@gmail.com
www.garaizar.biz
Illeta kalea 1 ALGORTA


BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairratia.com

Inprimatu zure posterra
airetik ateratako Bizkaiko argazki onenekin

Pilo bat daukazu aukeratzeko


GLOBAL PRINTERS

www.bizkaiadesdeelaire.com

Sar zaitetz zure eskaera egiteko

9,32€
-tik hasita
BEZ barne



ARGIHIZKIAK ERAKUSKETA KURTZION

AgiHizkiak argazkietan oinarritutako testu laburren lehiaketaren erakusketa Sopelara helduko da laster: martxoaren 17tik 30era ikusi ahal da Kurtzio kultur etxean. Hain zuzen, bigarren edizioako irudiak eta testuak dira erakutsiko direnak. Getxoko Egizu egitasmoak eta UK aldizkariak antolatuta ditugu lehiaketa eta erakusketa, eskualdeko Udalen eta euskara elkarleen laguntzaz.

Info+: www.sopelaudala.org

PARTE-HARTZEAREN ALDEKO HITZARMENA

Sopelako Udalak hitzarmena egin du EHU Euskal Herriko Unibertsitateagaz "herritarren parte-hartzeari buruzko diagnosikoa eta ikerketa egiteko". Asmoa da "gaur egun dauden bideak bultzatzea eta bide berriak zabaltzea, herritarren parte-hartzea erraztuz eta herrian parte-hartze kultura handituz". Horrela, Udalak Partaidetza eta Komunitate-Garapena masterreko ikerketa-talde bat izango du. Parte Hartuz taldeak koordinatuko du masterra.

Info+: www.sopelaudala.org

LIBURU-AURKEZPENA KULTUR ETXEAN, HILAK 20

Grupos autonomos, una cronica armada de la transaccion democratica liburua aurkeztuko du Joni D-k Kurtzio kultur etxean, Plaza Beltza kultur elkarteak antolatuta, "Pasaiaiko sarraskiaren 30. urteurrena" dela-eta. Liburuak "trantsizio demokratikoa deituriko gezur handiaren aurka matxinatu ziren taldekideengana hurbiltzen gaitu, bizi izan zuten testuinguruarekin batera: kontrakultura, langile autonomia, klandestinitatea eta errepresioa. Jeboren heriotza edo Agustin Ruedaren hilketa Carabanchelgo espetxean, gure historia isilduaren zati dira". Martxoaren 20an izango da, 19:00etan.

Info+: plazabeltza@gmail.com

Egarri dabilenari... Martxoaren 29an egingo da Esaera zaharren txapelketa, aurten 21. ekitaldia



Izena emoteko: jose-p@aek.org eta aitor-f@aek.org

...ur lohirik ez! Sopelako euskal esaera zaharren txapelketa izango da martxoaren 29an. Sopelako AEK-k antolatzen du eta aurtengoa 21. edizioa izango da.

Taldekatu txapelketa da, bi, hiru edo lau lagunetakoak. Martxoaren 24a baino lehen emon behar da izena: taldearen izena, taldekideren baten telefonoa edo posta elektronikoa helbidea helarazi behar dira, eta hamar euro ordaindu.

Goizeko 11:00etan hasiko da txapelketa herriko tabernetan eta, finala bazkaloetan egingo da, ohi legez. Bazkari-tarako txartelak 20 euro balio ditu eta di-

rua aurrez sartu behar da ondoko kontuan: 3035 0196 73 1961090811 (taldearen edo kideren baten izena adierazita).

Parte-hartzaileek ehun esaera zahar ikasi beharko dituzte txapelketaren egunerako. Orduan, bertsolariek esaerok deskribatuko dituzte eta zeini buruz ari diren asmatu behar dute lehiakideek. Bertsoa behin edo bitan abestuko da eta minutu bat izango dute esaera botatzeko, Gogoratzea erantzun bat baino ez dutela onartuko. Izena emoteko deitu 618 574 445 edo 695 774 015 telefonoetara. ○

Info+: www.sopelaudala.org

Aitor Elorriaga Torre > zine-zuzendaria

"Gidoi luze bat idazten nabil; presarik gabe, baina gustuko nuke filmatzea"



Notodofilm jaialdian lehiatzen ari da hiru film laburrez

Jameson Notodofilm festibalean lehiatzen ari da Aitor Elorriaga Torre sopeloztarra, hiru film laburrez. Iaz finalista izan zen beste film bigaz.

—Gaur egun bitarteko gitxi behar da labor bat egiteko, ona edo txarra da?

—Edonork graba dezake film labor bat eta hori ondo dago: nik argazki-kamera on batekin grabatu ditut. Notodofilm jaialdian hiru aurkeztu ditut aurten.

—Zer behar du film labor batek ona izango bada?

—Onena da giro ona edukitzea filmatzean. Normalean, giroa ona bada, film laborra ere bai. Gidoia edo ideia ere oso garrantzitsua da, baita aktoreak ere. Nire filmerik laburretan ez dira agertzen aktore profesionalak, lagunak eta ni neu baizik. Baina film labor luzetxoagoetan bai, aktoreak dira, eta desberdina da: nabari da aktoreak direnean.

—Gertukoek asko laguntzen dizute?

—Zortea daukat: casting-agentzia bate-

an lan egiten dut eta aktore asko ezagutzen dut. Eta guztiak daukate gogoia lan egiteko; batzuk lagunak ditut daborduko. Inork ez du ezer kobratzen.

—Umorea erabiltzen duzu, zergatik?

—Orain bai, erabiltzen dut. Ez dakit zergatik, baina nik uste jendeak barre egin gura duela, batez ere krisi une honetan.

—Zelan hasi zinen zinegintzan?

—Amamarekin astero-astero joaten nintzen zinera, eta zaletu nintzen. Duela hamar urtera arte grabatzen ibili nintzen,

«Amamarekin astero-astero joaten nintzen zinera eta zaletu nintzen»

eta gero utzi. Orain hiru urte hasi nintzen barriro eta sei edo zazpi film egin ditut. Film luze baten gidoia idazten nabil, ez dauka presarik, baina gustuko nuke filmatzea. Proiektu handia da, baina jendea gogotsu dabil parte hartzeko, dirurik gabe izan arren. Momentuz, jendeak eta ikusleek une on bat pasatzea nahi dut. ○

DIDAK hamilton IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email: sopela@ikastola.net

OINUTSIK KONTSULTA PODOLOGIKOA Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



OINAK DITUZU
ONGIZATEAREN
ZUTABE, OINEZ
EDONORA HEL
ZAITZKE!!

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

Hizkiak
Gosariak,
Pintxoak,
Giro eta musika onena
ONGI ETORRI!!
Bentatu 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA

OIARBIDE DEKORAZIOA

- Pladur: Tabikeak, zapaia, baldak
- Eskaiola: moldurak, kornisak
- Isolamendua: Beroa, hotza, zarata...

Tf. 656 76 98 10 gorkaoiarbide@hotmail.com
Andikoetxe 2, 48993 GETXO

uk zure
publizitatea
hemen!

94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

PIRATAZ BETEKO DA BERANGO

Martxoaren 15arekin helduko dira inauteriak Berangora. Aurten, pirata mundua izango da mozorrotzeko gaia. Hala, arrastiko 18:00etatik aurrera, udalerriko umeek desfilea hasiko dute Berangoetatik. 18:40an, txokolate-dastaketa egongo da frontoian, eta 19:00etatik 20:00etara, etxeko txikienezako disko-festa egongo da. Azkenik, eguna amaitzeko, nagusientzako musika-saioa egongo da, 22:00ak arte.

IPIIN KONTALARIA BERDINTASUNAREN ALDE

Martxoaren 16an, udalerriko gaztetxoek *Neskak eta mutilak mundu hobea baten alde* izeneko istorioak ikasteko aukera izango dute. Ipuin kontalariagaz une politak igartzeko unea izango dute, "indarrak uztartuz, mundu hobea bat lortze aldera". Saioa 18:00etan izango da, Berango Antzokian; eta sarrera doakoa izango da.

KIROLA SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZAK

Berangon erroldatuta dauden eta Getxoko Fadura edo Sopolako udal kiroldegietako urtebeterako abonamenduaren (familia zein norbanakoak) titularrek diru-laguntzak eska ditzakete martxoaren 31ra arte. Diru-laguntzen zenbatekoa Getxoko edo Sopolako abonamendudunen kuotaren zenbateko berbera izango da.

Info+: www.berango.net

uk zure publizitatea hemen!

94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

6,6 milioiko aurrekontuak EAJ, PSE eta Ezker Anitzaren aldeko boz-kakaz onartu dute 2014rako proposamena



240.000 euro inbertituko dituzte Sabino Arana kalea barrizeko

Berangoko Udalak 2014ko aurrekontuak onartu ditu, EAJ, PSE eta Ezker Anitzaren aldeko botoakaz. Bilduk, udalerriko bigarren indar politikoak, eta PPK, ordea, proposamen horren kontra egin dute. Hala, Berangoko Udalak 6,6 milioi euroko aurrekontua izango du proiektuak aurrera atera ahal izateko.

Horetatik, nabarmentzekoa da udalerriko Sabino Arana kalea barrizeko bideratuko dituzten 240.000 euroak. Ekintza horretarako, herritarren parte hartzea beharrezkoa dela ikusten dute Udalekoek: auzokideek euren proposa-

menak jakinarazteko bidea zabalduko dute, eta horren harira, udalerriko kale nagusia barrizeko proiektua osatuko dutela jakinarazi dute agintariek.

Ezker Anitzak, bere aldetik, zuzenke-ta bat gehitu du auzokideen elkarleen erregistro bat sortzeko eta prozesu parte-hartzaileak aurrera eramateko asmoz.

Bildukoek kontra egin dute ez dutelako udalbatzaren dokumentazioa berandura arte jaso. PPKo zinegotzi den Dolores Malo de Molinak, barriz, aurrekontuak ez direla behar besteko sozialak salatu du. ○



AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
• BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)



INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

Naiara Gaya > Agenda 21eko teknikaria

“Jendea bizi-eredu iraunkorrago bati begira jarri nahi dugu”



I. Elortegi, O. Soto, N. Gaya, I. Ladislao eta L. Maceda teknikariek bultzatu dute proiektua

Urbe Kostako Ekoguneko eta Mankomunitateko Kontsumo saileko teknikariek bultzatutako bUKata Rolla ekintza aurkeztuko dute maiatzean Erroman, europar sariketa batzuen baitan. Produktu hau ekologikoa da, berrerabilgarria, moldagarria, elikagaiak fresko edukitzeko baliagarria, erraz garbitzekoa eta oso pisu txikikoa. Horregaz batera, “bizi-eredu iraunkor eta jasangarriarantz begira jartzeko ere balio du”, sortzaileen aburuz.

—Zer da bUKata Rolla?

—Bilgarri ekologiko eta berrerabilgarria da. Horren barruan, otartekoak, gailetak eta frutak eraman daitezke ikastetxera, mendira zein hondartzara, besteak beste. —Noiz sortu zen proiektu hori egiteko ideia? Noren ekimenez?

—2012. urtean KIUBek (kontsumo-saila) eta Ekoguneko ideia hau aurrera ateratzeko proposatu zieten politikariei, eta ia, aurrekontuak onartuta zeudela, ekimena aurrera atera genuen.

—Hondakinak sortzea mugatzen du?

—BUKata Roll-ek 200 tona aluminio-paper saihesten lagundu du; bestela esanda, 30.000 kilometro paper baino gehiago. Hau da, Australiara joan eta etorriko bidaia bat. Bestalde, Hondakinei Aurrea Hartzeko Europar Astea azaroaren 16tik 24ra bitartean egin zen hemen. Horren barruan, hainbat bUKata Roll banatu

«200 tona aluminio-paper saihesteko baliagarria izan da»

ziren Uribe Kostako ikastetxe batzuetan. Parte hartutakoei hitzaldi laburra eskaini zitzaion, eta ikasle bakoitzari bUKata Rolla eman zitzaion. Gure helburua, umeek ogitartekoa bUKata Rollean eramatea zen, aluminio-paper eta antzeko bilgarrien kontsumoa murriztea.

—Non aurki daiteke?

—Eskoletan banatu ditugu. Bestalde, martxoan izango diren Etxe berdeen proiektuaren tailerretan ere banatuko ditugu. ○

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

UKnatura
2013-2014 KURSOA

- * BIOERAKUNTZA TAILERRAK
- * ARTISAU YABOIAK ETA KOSMETIKOAK
- * BIOERAKUNTZAKO PROIEKTUAK
- * ENERJIA BERRITZAGARRIAK

www.uknatura.org 692705471 / 646743241

COMERCIAL de LIMPIEZA VILLAR S.A.

Harrizko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorra
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industriala
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerre (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezavillar.com

zaindu
Esku Terapia Zentrua
Osteopatia - fisioterapia

Ane Nafarrate Martin
Doctor Ianda 4, Sopela
Telf.: 946026779

MENDIRA EGINGO DUTE SALTO PLENTZIARREK

Beste urte batez, Plentziako Txixirripatxarra-Gaminiz Kultur Taldeak eta Plentziako Udalak mendi-ibilaldia antolatu dute martxoaren 23rako. Ibilbide bi egongo dira, luzea eta laburra. Ibilaldi luzearen irteera goizeko 8:30ean izango da, Plentziako udaletxetik. Laburra egin nahi dutenek, berriz, goizeko 10:00etan ekingo diote biderei, aurrekoaren toki beretik.

PLASENTIA BUTRON MUSEOA ERABERRITUZ

Plasentia Butron Museoak bere burua zaharbarrituko du aurten. Gauzak horrela, esposizioko materialak, objektuak eta dokumentazioa tematikoki birbanatuko dituzte. Hala, lehenengo solairuak hiribilduko zein eskualdeko iraganaren inguruko gauzak hartuko ditu. Bigarrenean, berriz, merkataritza-ontziteriari buruzkoak ikusi ahal izango dira.

ESKUALDEKO IKASLEAK TXANGOAN DOAZ

Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak Gorliz, Lemoiz, Sopela, Plentzia eta Urdulizko Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendutako txangoak antolatu ditu apirilaren 23, 24 eta 25erako. Hala, martxoaren 24tik 26ra bitartean izena ematen duten neska-mutilek EAEko hiru leku "ludiko eta interesgarri" ezagutzeko aukera izango dute.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

Plentzia

Hiribilduko historian erreferente izan diren emakumeen bila



Proiektua martxoaren 6an aurkeztu zuten Goñi Portalean

Historia gizonen ikuspuntutik idatzita dago, emakumeen presentzia alde batera utzita eta mundu pribatuari lotuta. Hori dela-eta, gizadiaren Historia horren erdi batena baino ez da izan. Ebo-luzioaren protagonismoa gizonekoei emon zaie, eta idatzitako orri guztietan gizonaren nonahikotasuna ikus daiteke, guztiaren egile eta bultzatzailearen paperean.

Hala ere, emakumeak ere presente egon dira mende horietan danetan, borrokan, eta beste hainbat historia bultzatuz. Idatzi ez diren historiak, baina belaunaldiz belaunaldi transmititu direnak. Eta historia hori biltzekotan da Uribe Kostako Mankomunitateko Berdintasun-Zerbitzua, Plentziara egokitu-ta. Horretarako, genero ikuspuntua izango duen ikerketa abiatu gura dute, azken 150 urteetan hiribilduko hainbat arlotan erreferentziatzko izan diren emakumeen datuak batuz. Hala, lortutako

dokumentu guztiakaz, multimedia-artxibo bat egingo dute, ondoren lortutako guztia herriari zabaltzeko.

Hori guztia lortzeko, prozesu parte-hartzailea beharrezkoa dela jakinarazi dute arduradunek. Hala, artxiboak ikuskatzeaz gainera, herritarrakaz elka-

«Hainbat arlotan Plentziako erreferente izan diren emakumeen historia batu gura dute»

rrizketak egingo dituzte. Horregaz batera, Plentzian hainbat kutxa jarriko dituztela jakinarazi du Mankomunitateko Berdintasun-Zerbitzuak, "edozein informazio duenak bertan eskuragarri jartzeko eta ikerlariek jaso dezaten".

Proiektu honen nondik norakoen barri emateko, hitzaldi informatiboa egin zuten orain gitxi, baina gehiago jakin gura duenak Mankomunitateko Berdintasun-Zerbitzura jo dezake. o

Mar. 10 - Mar. 24

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 944 911 337

ERAKUSKETAK

PLENTZIA

► **Emakume begiradak.** Martxoaren 28ra arte. Goñi Portalen.

SOPELA

► **ArgiHizkiak.** Martxoaren 17tik 30era. Kurtzio kultur etxean.

GETXO

► **Almas en ruta.** Martxoaren 19ra arte. Villamonte kultur etxean.

► **Euskal akuarilarien elkartea.** Martxoaren 19tik apirilaren 6ra. Algortako Torreñe aretoan.

ZINEMA

GETXO

► **La jaula de oro.** Martxoak 21, 21:00etan. Areetako Andres Isasi musika-eskolan. 2,90 euro.

► **Piccolo y Saxo.** Martxoak 23, 17:00etan. Areetako Andres Isasi musika-eskolan. 2,10 euro.

BERANGO

► **Turbo.** Martxoak 23, 18:00etan. Berango Antzokian. Doan.

SOPELA

► **Kerity, ipuinen etxea.** Martxoak 23, 18:00etan. Kurtzio kultur etxean.

ANTZERKIA

LEIOA

► **Juana, la reina que no quiso reinar.** Martxoak 14, 20:30etan. Kultur Leioan. 10 euro.

GETXO

► **Todo dice que si... (errezitaldia).** Martxoak 15, 20:00etan. Andres Isasi musika-eskolan. 10 euro.



Info: www.hamlet.kz

► Antzerkia

Euskal Hamlet Erandion, martxoaren 20an

Hamlet, gaur eta hemen. Shakespeare-ren obra ezagunaren euskal bertsioa estreinatu zuten azaroan Artedrama, Dejabu eta Le Petit Theatre de Pain antzerki-taldeek. Bost hil beranduago, Erandiora ekarriko dute, noiz eta martxoaren 20an, eguenean. Altzagako azoka zaharreen izango da emanaldia, 20:00etan eta doan. Euskal Herrian eta XXI. mendean kokatzen da gure *Hamlet*, jendartearen kezka, arazo eta ezaugarriak: besteak beste, langabezia izango da antzezlanaren ardatz nagusietako bat. Xabier Mendigurenek egokitu du testua eta zuzendari lanean dihardu Ximun Fuchs.

• **Non:** Azoka zaharreen (Altzagako) • **Noiz:** Martxoak 20, 20:00etan

URDULIZ

► **Umore-bakarrizketa: Luis Larrodera.** Martxoak 15, 20:30etan. Kultur etxean.

ERANDIO

► **Umore-bakarrizketa: Luis Larrodera.** Martxoak 16, 19:00etan. Astrabuduko kultur etxean. 2 euro.
► **Guernica 1913.** Martxoak 22, 20:00etan. Altzagako azoka zaharreen. 3 euro.

BERANGO

► **Autu Mautu ipuin-kontalaria.** Martxoak 16, 18:00etan. Berango Antzokian. Doan.

GORLIZ

► **Ipuin-kontaketa.** Martxoak 22, 18:30etan. Sertutxenean.

SOPELA

► **La ultima oportunidad.** Martxoak 22, 19:30etan. Kurtzion. 9 euro.

MUSIKA

ERANDIO

► **Kontzertua Verdiren omenez.** Martxoak 15, 20:00etan. Astrabuduko kultur etxean. 3 euro.

GETXO

► **Duo con trastes.** Martxoak 15, 22:00etan. Algortako The Piper's Irish Puben. Doan.

► **Rudy Mental.** Martxoak 20, 20:00etan. Algortako Usategi tabernan. Doan.

SOPELA

► **Doc's Friends.** Martxoak 21, 21:00etan. Kurtzion. Doan.

LEIOA

► **Neighbor.** Martxoak 21, 22:00etan. Kultur Leioan. 10 euro.

URDULIZ

► **El pequeño Angel.** Martxoak 22, 18:00etan. Kultur etxean.

► **El lobo de Wall Street.** Martxoak 22, 20:15etan. Kultur etxean.

BERANGO

► **Doc's Friends.** Martxoak 22, 19:00etan. Berango Antzokian. Doan.

BESTEAK

PLENTZIA

► **II. Neguko jaia: erromeria eta indabak.** Martxoak 15, 13:00etan.

► **Mendi-martxa.** Martxoak 22, 08:30etan. Udaletxetik.

GETXO

► **Literatur solasaldia: Atrapados en el hielo.** Martxoak 20, 19:45etan. Algortako Kasinoan.

GORLIZ

► **IV. Indaba-Txapelketa.** Martxoak 22, 12:00etan. Ibarretan.



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



Gobelari jaramonez

Kua-kua gitxi entzuten da ingurdan aspaldi honetan; harria harriaren aurka, zein kirrinka eta karranka metalikoak. Errekak gainezka egin eta uriolak saihesteko helburuagaz, Gobela bideratzeko lanean dabiltza. Urak bere bidea egin ohi duela entzun dugu sarri, baina horren alboan nahita noizbait lekutatuko bizitokia babesteko, gizakia norantza barrietara bideratzeko ahaleginean temati... Eta zein luze doa daborduko lanen iraupena...

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Getxo, 1954

Andra Maritik Algortara

Getxon nekazaritza-eremurik lotzen bada Andra Mari aldean, jatorrizko Getxon da. Baina gaur egunekoak zerikusi gitxi dauka orain dela hamarkada batzuetakoagaz. Irudi hau La Venta baino apur bat goragotik hartuta dago, Algortara begira: urrunean ikus daiteke hirukoiztarren elizako kanpandorrea. Bidean, argazkiaren erdi-erdian dago Jauregi baserria. Zelaiak eta ortuak nongura; gaur egun, ostera, txaletez eta alkarri atxikitako etxez josita dago eremu osoa. Irudi bukolikoa emoten du, aspal-aspaldikoa, ia beste mende batekoa, mendi inguruko herri txiki haietako batena... Halakoa zen Getxo duela 60 urte!

GETXOKO UDAL-LIBURUTEGIA

[berbetan]

Gazte-gazte zela oholtza gainean bertsolari ezagutu genuen Jon Sarasua Maritxalar (Aretxabaleta, 1966). Kazetaritza ikasi zuen, eta urte askoan Bertsozale Elkartean lanean ibili zen. Gaur egun, Mondragon Unibertsitatean irakasle da, Huhezi fakultatean; SORguneak ikertegiko kide eta Garabideko partaide ere bada. Otsail amaieran Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoak gonbidatuta, Leioan eskaini zuen berbaldia, bere azken saiakera-lana berbagai: *Hiztunpolisa, euskaltasunaren norabideaz apunteak*.

Jon Sarasua

Euskararen sare eta zioak (des)lotzen

Testua: **I. Sagarminaga** / Argazkia: **Argazki Press**

—*Hiztunpolisa, euskaltasunaren norabideaz apunteak* saiakeragaz debatea sortu gura duzu; arriskatu ere egin duzu... Galdera nagusi bitan banatzen da lana: ‘Nola goaz?’ eta ‘Nora goaz?’. Lehenengoari helduz, diagnostikoa edo eskaintzen duzu: 50 urteotan eta genituen baldintzetan, ibilbide ikaragarria egin dugu, baina ez gaude ondo, diagnostikoa kezkarria da, ez da gripe bat. —Nik uste ‘Nola goaz?’ horretan bitasun bat edo kudeatu behar dugula. Bitasun horren alde batean, irakurketa errealista bat dago: gaixorik dagoen hiztun-komunitatea gara, eta gaixotasun hori serioa da; beno, zentzu horretan, nola esan... Gripea ez delarena agian irudi bat da, eta agian hurbilago dagoela minbizi batetik. Baina, hori ez da nolabait alarma jotzeko, baizik eta nolabait, esan daiteke, gaixorik

dagoena ere bizi daitekeela pozik edo aldarte onean, aukeratzen dugun aldartearen arabera... Baina, diagnostikoa arintzea ez da ideia ona, eta gainera, XXI. mendeak kezka berriak, aukera berriak eta alarma berriak dakartzkigu. Seguru

ragarria’ hitza agian gehiegizkoa da, baina handia dela bai! Euskara batuaren sorrera, ikastolak, kulturgintza, hedabideak, euskalduntze eta alfabetatzea... Hor herri honek egin duen lana, bai herri-iniziatibaz, bai erakunde publikoen inizatibaz

“Badugu irakurketa beregain xamarra egiteko aukera; irakurketa politiko interesatuetatik harago”

asko horiei aurre egiteko tresna berriak, ahalmen berriak eta estrategia berriak beharko ditugu. Orduan, halere, hori bitasun horren alde bat litzateke; beste alde, eta uste dut hau ere ikusi beharrekoa dela, lehen aipatu duzuna: 50 urteotako euskararen loraldi moderno deitutako honetan egindakoa handia dela! ‘Ika-

eta, batez ere, milaka eta milaka herritarren ahaleginez, handia izan da. Eta hori ezin dugu ezkutatu; hori jende askoren emaitza da, kolore askotako jende askoren emaitza... Batek ez digu bestea kendu behar! Zentzu horretan, badugu irakurketa pixka bat beregain xamarra egiteko aukera, irakurketa politiko interesatueta-



tik harago. Agian batzuei egin den guztia azpimarratzea interesatzen zaie, eta beste batzuei “zein gaizki gauden!” eta zer ez den egin.. Pixka bat beraien jarrera politikoak justifikatzeko. Baina, uste dut, hortik harago irakurketa osoago bat egin dezakegula, txaponaren bi aldeak ikusi, eta batez ere pentsatu aurrera begira zer egin behar dugun eta non oinarritu nahi dugun.

—Amets handien belaunalditik gatzela esaten zenuen Leioako berbaldian, jarre- ra nerabea izan dugula... Eta XXI. mendek itaun barriak proposatu behar dituela, berrikuspen-sasoia dela. Hori zelan eta nortzuren artean egiten da? **Badakigu liburua galderak mahaigaineratzeratza datorrela, eta oso garrantzitsua da hori, baina...**

—Nik uste baditugula tresnak. Liburuan saiatzen naiz horiek pixka bat aletzen: baditugu, batetik, eremu publikoan, lanean ari diren erakunde batzuk; bestetik, gizarte antolatuen esparruan, erakunde-sare oso interesgarria daukagu, euskalgintzaren ia alor guztietan esperientzia handiko erakunde-sare bat: bai corpusaren alorrean, bai hezkuntzan, euskalduntzearen alorrean, bai kulturagintzan, bai hedabideetan e.a. Orduan, uste dut, justu horiei dagokiela, bakoitzak bere adarrean, hurrengo estrategiak zein diren pentsatzea. Zentzu horretan, esaten dut, estrategia mailako lausoaldi edo ilunaldi batean gaudela; bakoitza bere proiektuari eusten, baina aurrera begirako bisio argirik gabe. Eta nik uste badugula gaitasuna pixkat, berriz ere, ametsaren erreproduzio horri eusteko. Eta nortzuk? Horiek! Euskararen gizarte-erakundeak erakunde publikoekin batera. Euskararen gizarte-erakundeak esaten dudanean, hor milaka eta milaka pertsona mugitzen dituzten euskalgintzako sareak daude; eta nik uste, denon artean egin behar dugula!

—**Gizarte-antolatua aipatuta, azpimarratzen duzu gizarte-antolatua botere-gu- ne legez. Politika eta Polistika hitz-jokoa**

darabilzu; tesi nagusietako bat: euskararen mezuak alderdi politikoetatik aparte berezko doinua, euskalgintzaren taudapa autonomia aldarrikatzen duzu. Horrek hainbat izkinatan hautsa harrotuko zuen...

—Bai... Nik uste hori indar handiz esan beharrekoa dela ziklo honetan. Hor badaudelako tentazio batzuk; oro har, alder-

“Euskararen mugimenduak horien guztien gaintetik eta azpitik, guztientzako mezu erakargarria planteatzen dezake”

dien tentazioa indar pilaketa delako eta dena apur bat euren esparrutik ikusteko joera dutelako. Eta arriskua egon daiteke-elako euskalgintzaren doinua, nolabait euskalgintzaren doinu aldarrikatzaileena, sentsibilitate politiko jakin batekin, eta gainera hauteskunde-alderdi jakin batekin, identifikatzeko. Hori alderdi horrentzat ona litzateke, baina euskararentzat epe luzera oso txarra. Eta nik uste euskarak bere doinu propioa garatu behar duela; baduela, neurri batean, eta horri esker gaudere hemen, besteak beste! Euskara batua denona izan da, ikastolen mugimendua ere askorena izan da... Nik uste herri honetan egin ditugun gauza onenak izan direla, hain zuzen ere, alderdikieretatik blindatu ditugulako. Baina, beno, ildo horretan sakondu egin behar da, eta tentazio

“Lausoaldi batean gaudere, aurrerako bisio argirik gabe... Badugu gaitasuna ametsaren erreproduzioari eusteko”

berriak saihestu. Eta uste dut euskararen doinu edo zapora hori gizarteari, gizarte osoari, hasi Iruñetik eta Barakaldoraino, zabaldu behar diogula. Alderdi politikoek euren proposamenak dituzte, eta oso ondo daude, eta oso beharrezkoak dira; baina, euskararen mugimenduak horien guztien gaintetik eta azpitik, eta guztien-

tzako mezu erakargarri bat planteatzen dezake. —Euskararen olatua indartu beharra, olatu ekologikoa izan behar duela diozu, denona... Baina hori zelan egiten da?! mezu hori gizarteratzeko, jendea euskararen ziora hurbilazteko bideak, moduak aurkitzea ez da hain erraza, hori ondo dakite azken urteotan ahaleginetan dabil-tzan euskara elkarteek-eta... Ekarpen ba-

rridun gazteak zelan erakar daitezke?

—Belaunaldi bakoitzak ditu bere baldintzak, eta belaunaldi honetan, oro har, beno, atxikimendu modalitatea ezberdina da; ez da beharbada gauzekiko, ezta militantziekiko ere, lehengo atxikimendu solidoa, hizkuntzarekiko ere ez... Orduan, hor jokatzen asmatu behar da! Bestalde, garai politiko oso asaldatuak edo, astintzaileak edo bizi izan ditugu; horrekin ere sektore zabal batzuek izan dituzte argudio gehigarri batzuk euskaratik urruntzeko eta... Hori guztia horrela da. Baina, nik, zentzu horretan, uste dut hobe dela positibo jartzea eta helduleku berriak ere egon litezkeela pentsatzea. Nire ustez, gaur egun, aro ezberdin bat datorkigu zentzu guztietan; eta aro ezberdin horretan, euskararen diskurtso ekologikoak hainbat

jende engaiatu edo inplikatu dezake.

—**Gazteak euskaraz jardutearen, erabile- raren, inguruan, ‘hautua’ indarra hartzen dabil, indartsuagoa izango dela dirudi...**

—Hori alde bat bakarrik da. Egia da, hizkuntza-dinamikak ez direla hautuzkoak bakarrik eta, gizarte guztietan, hautu hutsa ez diren beste hainbat arlo ere gara-

tzen direla. Baina, XXI. mendeko gizarte liberal, ireki eta hautuzkoan bizi gara, eta zentzu horretan, garbi dago ‘hautu’ elementua edo dimentsioa oso garrantzitsua izango dela gurea bezalako gizarte batean, gazteek eta hurrengo belaunaldiek aukeratu egingo dutelako zein hizkuntzatan nabigatuko duten une oro interneten, eta zein hizkuntzatan mintzatuko diren kua-

“Galdera inportante bat: hiztun-hautua egiteko motibazioaren birsortzea nola gertatzen ari da orain eta hemen?”

drillan, eta zein hizkuntzatan ikusiko duten telebista e.a. Esan nahi dut, hor inposaketarako tarte mugatua dago, eta hautu-gizarte batean biziko gara. Orduan, hori da gure galdera inportanteetako bat: hiztun-hautua egiteko motibazio horren erreproduzioa edo birsortzea nola gertatzen ari da momentu honetan Euskal Herrian? Zer zirkuitu daude horren atzean? Zergatik funtzionatzen du funtzionatzen duen lekuetan? Eta zer arazo daude?

—**Euskal Herriaren etxea eraikitzearen metaforan, sua euskara dela eta sukaldegintzan euskalgintzak beharko lukeela adierazten duzu. Horren inguruan, sukalde-tresnak organikitze edo erakundetzeko proposamena egiten duzu.**

—Metafora horrek esan nahi duena pixka bat hori da: sua hiztun-komunitatearen jarraidura balitz, eta etxea, berriz, estatu-gintza, nazio-gintza edo dena delakoa, eta hor aukera desberdinak, estatu desberdinak, aukera politiko ezberdinak... Beno, esaten dut, estatuaren edo nazioaren planoan dauden indarrak eta dinamikak hor daudela, baina suari dagokion dinamika

sukaldegintza ere badela, nagusiki sukaldegintza dela. Eta sukaldea da, azkenean, sua, elikadura ziurtatzeko aparatua(k). Horretan, uste dut, ez dudala ezer berririk esaten... beharbada esan bai, horrela esanda, baina egiten ere hori egiten ari gara; azken 50 urte hauetan sukalde hori antolatzen ibili gara eta horregatik ari gara jaten! Esan nahi dut, euskara batua hori da, Euskaltzaindia hori da, Uzei hori da, ikastolak eta eskolak hori dira, Bertsozale elkarte hori da, AEK, Elhuyar, Emun, Topagunea, euskara elkarteak e.a. Nik uste, alor bakoitzean, sukaldegintza hori egituratzen ari garela! Beste kontu bat da uste dudala XXI. mendean sukaldegintza horrek salto kualitatiboak eman behar ditue-

la; aski sukalde prekarioa daukagula datozkigun desafioetarako...

—**Aurreko eta gure belaunaldiak “dena zuen egiteko!”, eta egiten zena baliogarri edo... Baina datozenentzat egindakoaren gaineko egitekoa ez ete zailagoa?**

—Hori da pixka bat gertatzen dena. 50 urteko ziklo batean gaudere, eta hainbat hamarkadatan beharbada protagonismo aukera handia izan dute belaunaldiek, eta halako ziklo neke bat ere egoten da... Gauza bera ikusten da ez dakit... Gogoratzen naiz Kubako kooperatiben gaiaz, han ere ziklo nekea ikusten zen, desberdina da iraultza egin duen belaunaldia eta iraultzan hazitako belaunaldia. Berdin kooperatibetan, ez da gauza bera kooperatibak sortu zituen belaunaldia eta kooperatibak beti ezagutu izan dituen. Euskalgintzan ere, prozesu askotan, belaunaldi honek gauzak eginda ezagutu ditu, eta beharbada jarrera desberdina da. Dena den, nire ustez, hor interesgarriena da ikustea hainbat gauza berpentsatzeko eta berregiteko daudela, eta jakina, belaunaldi berrientzat badagoela asmamenerako, sormenerako eta protagonismorako margen handia.

—**Esaterako??**

—Euskal unibertsitatearen galdera hor dago; kulturagintzan arlo batzuk oraindik egituratu gabe daude, adibidez, musikagintza; eta beste mila arlotan... ○

Saiakera gizarteratzen

—**Liburuagaz besapean aurkezpenak eta berbaldiak eskaintzen ibili zara, zer giro antzeman duzu?**

—Egia esanda, oso gustura nago; liburuarekiko harrera ona izaten ari da. Zerbait idazten duzunean inoiz ez daki-zu non bukatuko duen, zuk nagusiki barrua husteko egiten duzu, eta pixka bat burua ordenatzeko... Eta ikusi dut euskalgintza inguruko giroetan, behintzat, gai hauek mugitu direla, hainbat

herritan interesa ikusi dut... nik ezin dut gehiago eskatu; horretan ez nintzen oso anbizio handikoa, herri batzuetatik deitzearekin, jendea irakurtzen ari dela eta debaterako balio duela ikustearekin ni nahiko pozik sentitzen naiz.

—**Eta eztabaidari heldu diotenakaz zelan? Zeri heltzen diote? Zerk arduratzen ditu?**

—Nik uste, justu, liburuak planteatzen dituen puntu bero horiekin eztabaidara

sartzen dela jendea. Oro har, liburuan esaten dena ikusten dut, horrelako nora-bide edo ipar lausotze bat bizi dugula, ahalegin handia egin dela, eta jende baten espektatibak ez direla bete tentsazioa duela, nekea dago... Badago gogo gogoetarako, eta jakiteko nora joan nahi dugun. Zentzu horretan, nik uste dut, momentu onean datozela gogoetak, bai hauek eta bai beste batzuk ere. Uste dut hau denon egitekoa dela.




Itsasoa, gure baitakoa

Itsasoa paisaia huts izatetik, bizitzako bidaia-lagun bihurtu zaiola konturatu zen Jon Astorquiza (Getxo, 1975). Hari begira, une gozoetan zein gazietan, erabaki garrantzitsuak hartzeko orduan... Barneratzen, garatzen, hazten joandako harremana izan dela dio argazkilari getxoztarrak; eta barrua blaitzen utzi zion...

Giro, egoera, jarrera pertsonalen altzo eta isla bihurtzeraino, jomuga iraunkorra: itsasoa; irudi laukiotan harrapatzeko ahalegina argazkiok, jakinda menderaezinezkoa hezi edo otzandu gura izatea legez datekeela...

Argazkiak: **Jon Astorquiza** / www.jonartphotography.com





Andra Mariko Tosu landa defendatuz

Porlanaren ereduari aurre egin gura diote, bestelako bizi-eredu baten alde

“Getxoko Udalaren porlanaren eredu iraungiari” aurre egiten ari zaizkio Tosu Lagunak asanbladako kideak. Gau egun, ortua okupatuta dute Ibarbengoa metro geltokiaren ondoko landan. Bertan, disuasio-parking bat egin gura dute, eta horri aurre egiteko asmoa dute.



2011ko LZParen kontrako akanpadaren ondorioz okupatu zuten Tosu landa

Getxo historikoki abeltzantza eta nekazaritzan oinarritutako herria izan da. Gaur egun, ostera, hiriaren garapenak lehenengo sektorea zanpatu eta zerbitzuenera jotzeko bidea hartu du.

2011n, Uribe Kostako LZP-ren Aurkako Asanbladak lehenengo akanpada burutu zuen Ibarbengoa metro-geltoki eraiki berriaren ondoko landa batean, eta, Andra Mari eta Azkorri auzoetako nekazal eremuetan “*gertatzen ari den politika espekulatzailea gizarteratu eta salatze*ko asmoz”, Tosu izena duen landa hori okupatzeko hautua egin zuten.

Urte batzuk geroago, 2013an, bertara batutako kideek Tosu Lagunak elkarte edo asanblada sortzea erabaki zuten. Gaur egun, Romoko eta Neguriko hainbat gizon-emakumek osatzen dute asanblada.

Ortua baino gehiago

Tosu landa okupatu zutenek ortua osatu dute bertan, “*baina ez gara horretara bakarrik mugatzen, horretaz gain beste hainbat ekimen eraman ditugu aurrera*”, jakinarazi du German Fernandez Toriok, asanbladako kideak. Izan ere, azken urteotan zuhaitz ugari landatu dituzte Azkorri inguruan. Borja Gonzalez Bombinek azaldu duenez, orokorrean haritzak eta arteak landatzen dituzte; baina baita fruta-arbo-

lak ere, hala-nola, gaztainondoak, itxaurrondoak eta hurritzak. Horregaz batera, Tosu Lagunak elkarteak auzolanak sustatu eta auzokideentzako parkea ere egin dute landan bertan. “*Okupazio hau*

Barikuro batzen dira goizeko 10:30ean, lanerako zein asanblada egiteko

salaketa politikoa izan zen, lekua oso garrantzitsua da plan urbanistikoei dago-kienez, metro-geltokia bertan dagoelako eta orain parkinga bertan egin gura dutelako”, salatu du Pello Fuente Gorostizak, asanbladako beste kide batek, “*hasieran ez genekien parkinga edo etxebizitzak izango ziren, baina guretzako berdin dio bata zein bestea egitea. Muga jarri gura diogu pornalari*”. Ortuaz, naturaz eta elkarlanaz ikas-

teko eta lan egiteko modu herrikoia berreskuratzeko saiakera ere izan dela gaineratu du Fernandez Toriok.

Disuasio-aparkalekua

Getxoko Udalak disuasio-aparkaleku bat egiteko asmoa du Ibarbengoa metro geltokiaren ondoan, Tosu landaren %80 hartuko duena. Geltokia egiteko kostua 50 milioi eurokoa izan da, eta proiektu barri honen aurrekontua, barriz, 6 milioi eurokoa. Getxoko Udalak jakinarazi duenez, diru hori Bizkaiko Garraio Partzuegoak (CTB) emongo du; eta lanak 2015erako amaituko direla aurreikusi dute. Hala, parkinga amaitzen dutenean, denbora luze itxita egon den metro geltokia ere zabalduko ei dute.

Aparkaleku barriak 300 ibilgailurako edukiera izango du, eta CTBk agindutako ikerketa baten arabera, “*eguneko 213*



Azken urteotan, bertokoak diren hainbat zuhaitz landatu dituzte Azkorri

tokitan balioztatzen da eskaria”. Udalak aipatutako ikerketa horrek dioenez, galdetutako pertsonen ia erdiak (%44ak), “*arazoak dituzte lantokian edo ikasten duten zentroan aparkatzeko*”; eta udal agintariak jakinarazi dutenez, “*erabiltzaile izan litezkeen erdiak zerbitzu berriaz interesatuta dagoela erakutsi du*”. Gainera, datuen arabera, inkestatuak %75ak astean 3,5 egunetan hor aparkatuko lukeela diote.

Tosukoakaz batera, auzokideak ere aparkalekuagatik arduratuta ei daude. Fuente Gorostizaren arabera, “*inguruko*

300 plazatako parkinga egin gura dute Ibarbengoa alboko landan

jendea da obren kalteak gehien jasan dituenak. Guk ortua egin dugu bertan, baina beraiek hor bizi dira”.

Horren harira, Andra Mariko Auzo Elkarteak, Getxoko Bilduk eta norbanako batzuek alegazioak bidali zizkioten Eusko Jaurlaritzari abenduaren hasieran. “*Landa horren azpitik akuifero bat igarotzen da eta inguruko auzokideek ur horregaz hornitzen dituzte euren putzuak*”, jakinarazi du Fer-

nandez Toriok. Alegazioen aburuz, inguru horretan ingurumenaren gaineko eragin txostena egin behar da, baina Jaurlaritzak horiek baztertu dituela azaldu dute Tosu Lagunak elkarteak.

Aparkalekua eraikitzeke obrak apirilera hastea aurreikusita bazegoen ere, Tosukoek ez dute ezelango abisurik jaso: “*ez da*

inor etorri bertan zer egingo duten azaltzerik. Badakigu landa Viviendas de Vizcaya-rena dela eta Garraio Partzuegoari eman ziola, baina obrak 7 hilabetez atzeratu dituztela entzun dugu”. Horren aurrean, lan-ildoak “*mehatxuen aurrean*” jendeari informazioa zabaltzea eta inplikazioa

Bestelako bizi-eredu baten alde borrokatzeko prest daude

eskatzea dela dio Fuente Gorostizak, “*ezin gara egon denbora guztian beraien epeak zelan markatzen dituzten ikusten*”. Hortaz, bertan tinko jarraituko dute, indartzen; baina, obren hasiera-data zehatza dakitenean, “*edozer gauza*” egingo dutela iragarri dute. “*Orain jende gehiago animatzea espero dugu, eta horretarako, hila-betean behin tailer bat eskaintzea pentsatu dugu*”, azaldu dute. Obrak datozenean, ostera, dauzkaten indarren arabera jokatuko dutela iragarri dute. Hala ere, gauza bat argi dute: asko maite dutela landa hori, “*gure planifikazioa betiko izango balitz egin dugu beti, horregatik gure goiburua: Tosu betiko!*”. ○

Tosu-landan egin gura duten aparkalekuaren kontra egiteko prest daude





BETIKO
IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarria



Ikastolen Elkartea

Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

Zabala kaleko 9. zenbakian

MUGITU GARA

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Zabala 9

ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Baltzean eta laburrean Plentziako Mikrofilm lehiaketak zinema- jazoerak **apirilaren 25a** arte jasoko ditu



Joan den urtean 248 lan jaso zituen lehiaketak

Zuzendariei, detektibeei, laguntzaile zein babesleei dei eginez aurkeztu dute Plentziako Mikrofilm lehiaketaren III. ekitaldia.

Mikrofilm, zinema baltzeko film laburren nazioarteko lehiaketan parte hartu gura duenak 18 minututik beherako iraupena du(t)en lana(k) apirilaren 25a baino lehen bidali beharko d(it)u. Horretarako, hiru bide edo plataforma ipini dituzte aukeran: Movibeta, Uptofest eta Festhome. Edonongo norbanakok zein taldek parte har dezake, fikziozko edo animaziozko lanek euskarazkoak edo gaztelaniazkoak izan behar dute, ala bestelako erdaraz balira aipatutako hizkuntza bietako batean azpitoluak jarrita aurkeztu beharrekoak. Oro har, horiek dira baldintzak, baina antolatzaileek argi ohartarazi dutenez, lehiaketaren *“oinarriak irakurtzea oso garrantzitsua da”*. Izan ere, beste zenbait arlotan legez, zinema baltzaren mamien eta barruen mugak ezaugarritzea ez da batere erraza.

Hurbilpen modura, Generoaren NAN-iruzkina plazaratu dute webgunean, eta estetikari zein edukari dagokienez, lehenetsiko dituzten ezaugarrien zerrenda ere irakurgai dago orrialdean.

**«Sari bi:
nagusia 1.500 eurokoa
izango da, eta ikusleen
saria 500 eurokoa»**

Horrez gainera, *“hau ez da broma. Berriro, hau ez da broma”*, detektibe eta ikertzaile guztiei zuzendutako mezua ere zabaldu dute: *“Detektibeak, hor bazaude, ez dudarik izan eta zatoste Mikrofilm 3. ediziora eta zuetako batek kasu edo istorio harrigarriren bat badauka kontatzeko, hobe! Idatz egiguzue mailera”*. Bestalde, hautatutako lanak eta beste hainbat ekimenek osatuko duten Mikrofilm vol.3 zinemaldia (uztailak 4 eta 5) akabura eroateko babesle-laguntza ere ondotorria izango dela azaldu dute. ○

Info+: www.mikrofilmfestival.com

Sopelan hitzorduak Martxoan zuzeneko interesgarri bi: Ruper Ordorika eta Docs Friends



Oñatiko abeslari eta musikariaren kontzertua hilaren 16an izango da

Kurtzio kultur etxeak (Sopela), besteak beste, kontzertu interesgarri bi iragarri ditu hil honetarako.

Batetik, ‘Sopela’ udalerriko izen ofizialtzat onartu ostean, “Sopela, izana eta izena” ekitaldia egingo dute hilaren 16an, domekan, arrastiko 19:30ean; eta horren albotik, Ruper Ordorikaren zuzeneko emanaldiaz gozatzeko aukera egongo da. Sarrera doan izango da, baina aurretik gonbidapena (pertsona bakoitzeko gehienez 2) jaso beharko du hurreratu gura duenak. Hala, Kurtzioko aretoak leku kopuru mugatua duenez, gonbidapenak bana-

tzeko orduan, sopoloztarrek lehentasuna izango dute: hilaren 15era bitartean eskuratu ahalko dituzte. Gainontzekoek, Sopelan erroldatuta ez daudenean, hilaren 11tik 15era jaso ahalko dituzte (ohiko lekuetan, adib.: kultur etxea, udaletxea e.a.)

Bestetik, AEBeko Docs Friends taldearen kontzertua hilaren 21ean, barikuan, izango da, gaueko 21:00etan. Ekitaldi horretarako ere sarrerak doan dira, baina aurretiaz gonbidapenak (pertsona bakoitzeko gehienez 4) jaso beharko dituzte, eta daborduko eskuragai daude. ○

Info+: www.sopelaudala.org

diskoak

Azeriak
Bakelite
Frigo Fingers / Borax ekoloz.



Naiara Anasagastik (ahotsa eta perkusioak) eta Sergio Llanosek (gitarra) osatzen duten biko taldearen lana CD eta LPan eskura daiteke daborduko. Batuz zein bizkai-eraz abestutako 10 kantako diskoa eta estiloari dagokionez, rock-and-rollaren eta bluesaren eraginak nabarmentzen badira ere, beste hainbat alorretako ukituak antzemango ditu entzuleak.

Busco en tus labios...
Doctor Deseo
Baga Biga



Bilboko taldearen hamalagarren diskoa kalean dago: *Busco en tus labios. lo mejor del Deseo*. DVDan 50 minutuko dokumentala eta zuzenean Euskal Herriko hainbat lekutan grabatutako 20 abestik laburbiltzen duten taldearen bizitza musikala jaso dute lanean. Gainera, 3 kantu barri ere sartu dituzte bilduman.

EH3 soundz vol.2
Bilduma
Euskal Hip Hop Herria



Euskal Hip Hop Herriak bigarren bilduma plazaratu du. Euskaraz, ingelesez eta gaztelaniaz abestutako hainbat talderen bertoko hip hop lagin bat, 20 kantu, eskaintzen ditu lanak; besteak beste, honako taldeenak: Norte Apache, Norzzone eta Neat, Saunah & Moises, ZTK Rap, La Cremme, Black Liquorice, Sonny Cruz edota Xenon, Itoiz & Caste e.a.

ska-p > hirugarrenean bai?

Iragan urtean Bilbon eskaini beharreko kontzertua bi biderrez bertan behera utzi ostean, Euskal Herrian emongo duten kontzertu bakartzat aurkeztu dute apirilaren 12ko emanaldia. Oraingoan, Bilbao Arena aretoan (Miribilla) ipini dute hitzordua. Aurretik Bakioko Akatz ska-reggae taldeak joko du (20:30); eta kontzertu bietarako sarrerak 9 euroan (salmenta-gastuak gehitu barik) daude salgai. Ska-P taldeak 20 urte (modu iraunkorrean jardun ez badute ere) betetzen ditu aurten, eta iaz argitaratutako diskoaren izena legez, 99%-an ziurtatzen dute aipatutako kontzertua...

Info+: www.ska-p.net

jaialdia > Bilbao BBK Live

Kutxak izena eta osagaiak aldatu baditu ere, Kobetamendin egin ohi den jaialdiak badirudi izenari eutsiko diola. Bilbao BBK Live-n IX. ekitaldiak indie estiloa izango du ardatz nagusi, eta daborduko ezagutara-zi dute aurtengo uztailean 10, 11 eta 12an jaialdian joko duten hainbat talde, besteak beste: The Black Keys, Franz Ferdinand, Phoenix, Jack Johnson, Imagine Dragons, Foster The People, Mgmt, The Lumineers, Vetusta Morla, Crystal Fighters, John Newman, Conor Oberst, Los Enemigos, Frank Turner & The Sleeping Souls, White Lies, El Columpio Asesino, Dorian, Bleachers, Future Of The Left, John Talabot (Dj Set), Allen Stone, Kuroma, Belako, Izal, Chet Faker, The 1975, Elliott Brood eta La M.O.D.A.

Info+: www.bilbaobbklive.com



Av. Basagoiti nº73, 48991 Algorta
Tel.: 946 12 07 52
facebook/RebelTattooAlgorta

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean

Tf. 94 430 15 00

(15 eguneko epemuga)

I

Iñaki
Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[literatura]

Haur-literatura bultzatzeko

Mikel Zarate **sariketara lanak** aurkezteko epea zabalik **apirilaren 30era arte**

Eleberri idazle, olerkari eta saiogile lezamar Mikel Zarate (1933–1979) euskara eta euskal literatura irakasle eta apaizaren omenez, Lezamako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolatzen duten sariketa abian da. Umeei begirako literatur sorkuntza, *“irakurgai berriak sortzea eta idazleen lana bultzatzea”* du helburu Mikel Zarate sariak eta aurten bosgarren ekitaldia izango du.

Lanak aurkezteko epea hurrengo hileko azken egunean amaituko da, apirilaren 30ean, eta kontuan hartu beharreko lehenengo betebeharrak hartzaileak dira, hau da: euskaraz sortutako kontakizunak Lehen Hezkuntzako ikasleentzat (6-12 urte bitartekoentzat) eginak izango dira. Bestalde, gainontzeko baldintzak ondoren-

«6-12 urte bitartekoei begira egindako lanak izan beharko dute»

goak dira: ohi dan legez, jatorrizkoak, beste inondik moldatu eta aurretik saririk jaso edo argitaratu bakoak; Din-A4 formatuan, makinaz, eta tarte bikoitza utzita, gitxienez 10 eta gehienez 50 orrialdeko luzera bete beharko dute idazlanek; hiru ale bidali beharko ditu parte-hartzaileak, eta horiekaz batera gutunazal itxi bat,




Mikel Zarateren (Lezama, 1933-1979) irudia

kanpoan idazlanaren izenburua adieraziko duena eta barruan egilearen datuak (izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta NAN-ren kopia).

Lanak posta arruntez bidali beharko dira hurrengo helbidera: Lezamako Udala, Aretxalde, 1. 48.196 Lezama. Ostein, Leire Bilbao, Miren Agur Meabe eta Antxiñe Mendizabalek osatutako epaimahaiak maiatzaren 31 baino lehenago hartuko du erabakia, eta ondorioz, nor jasoko duen 3.000 euroko saria; Elkarrek lana argitaratuko du. ○

Info: www.lezama.org
www.elkar.com

liburuak



Frankenstein
Mary Shelley
Erein / Igelia
Iñigo Errastik euskaratu du, Literatura Unibertsala bilduma osatzera datorren Mary Wollstonecraft Godwinen (senarraren abizena hartuta ezagunagoa) 1818an argitaratutako Frankenstein doktorearen eta horrek sortutako izakiaren istorioa.



A zer lau elementu
Karlos Linazasoro
Pamiela
“Aurrena, poema jolastiagoak eta errazagoak eman behar zaizkio irakurleari, gero poesia jasoagora hurbiltzeko” bere ustea egiakirutz, tolosarrak gazteei begirako poema-liburua ondu du Sua, Lurra, Aire eta Ura ardatz hartuta; jolas, poema, esaldi umoretsu, eta hitz bitxiak kutxa-gordailu bat.

[kirola]

Iñaki Bildosola > Getxo Igeriketako igerilaria

“Master mailako taldeetan giroa oso ona izan ohi da, non kirola eta aisia batzen diren”



1.000 parte-hartzaile inguru leihatuta dira Espainiako txapelketan: 650 gizonetako eta 350 emakumezko

Iñaki Bildosola Getxo Igeriketa-taldeko kidea da, eta otsailaren 20 eta 23 bitartean Palman egindako neguko Espainiako Open Master txapelketan lehiatu da beste hainbat kidegare batera. Bertan, emaitza ezinhobeak lortu dituzte.

—Espainiako Open Masters txapelketan guztira 28 domina eta lau marka hautsi dituzue, zelan hartu duzue hori?

—Ez da guztiz ustekabeko kontua izan. Joan aurretik partaideen zerrendak argitaratzen dituzte eta hortxe zure aukerak neurtzeko aukera baduzu. Bestetik, sortutako master-taldearen maila altua zela bagenekien eta nahiko lan egin dugu txapelketa prestatzen. Dena den, beste gauza bat da hara joatea eta gauzak ondo irteera, eta horrela izan denez, poztasunez eta egindako lanaz harro itzuli gara etxera.

—Zelakoa izan da esperientzia?

—Kristorena. Kontuan izan behar da txapelketa hauetara nagusitxoak goazela; gaztetan txapelketek duten "derrigorrezkotan" kutsu hori desagertzen da zelanbait.

Izan ere, hara zoaz gura duzulako, gogo handia duzulako parte hartu eta ondo egiteko, zuk zeuk erabaki duzulako. Horregaz, master-mailako taldeetan giroa oso ona izan ohi da.

—Horrelako emaitzak lortzeko zelan da hartu beharreko prestaketa?

—Bakoitzaren espezialitatearen arabera. Gure artean distantzia luzeko parte-hartzaileak izan ditugu, astean 4/5 egunez bi ordu eman behar izan dituzte uretan eta bi egun indar entrenamenduetan. Distantzia laburrekoek, igerilekuan egun kopuru

«Maila beti oso altua da, gaztetan puntako igerilariak izandakoak»

bera baina denbora gutxiago, ordu eta erdi adibidez, eta indar entrenamenduetan 3 egun gogorrago. Gaztetan sartutakoak baino ordu gutxiago dira horiek, baina beharra, kasu batzuetan familia, eta horrelakoz egokitu behar direnak, lan zaila. Halaber, asteburuak ere entrenatzeko baliatu behar ditugu. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kizoi moda



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 · ALGORTA

Leire Pelaz Lopez > Milan (Italia)

“Sexu bien arteko rolak oso markatuta daude”

Profesionalki zein pertsonalki hazteko beharrak eroan zuen Leire Pelaz Lopez sopoloztarra Milanera, orain dela hiru hilabete inguru. Hori dela-eta, Eusko Jaurlaritzaren Global Training beka eskatzea erabaki zuen. Hasieran, ideia zen ingelesa edota frantsesa hobetzea, baina Microsoft enpresatik beragaz harremanetan ipini zirenean, aukera profesional ezin hobea iruditu zitzaion, eta Milanera jo zuen. Gaur egun, Microsoft Italiak Milanen daukan egoitzan dabil lanean, salmenta sailean, **Sales Excellence Specialist** gisa. Gustura dabil eta astean bitan doa italiara eskoletara.



Onuragarria izaten ari da Pelazentzat Milaneko esperientzia: jendea ezaugutzearaz gainera, ezezaguna zuen hizkuntza bat ere ikasten ari da, italiara.

Zer bisitatu eta zer ez galdu

Milan betidanik bere duomoagaz (hiriko eliza nagusia) irudikatzen bada ere, Italiako hiriburu industrial honek badauka beste txoko xarmangarri ugari: Navigli, Brera edota Parco Sempione inguruak. Beraz, norbaitek hiriburu honetan zer egin daitekeen galdetuko balio, aipatu txokoe-tara hurbiltzea gomendatuko lioke Pelazek. Izan ere, denda oso berezien ikusmiraz gozatzeaz gainera, taberna zein jatetxe politakaz topo egin daiteke. Gainera, arrastiko zazpiak inguruan, Milaneko gune horietara hurbilduz gero, “aperitibo” hartzea gomendatuko lioke gure lagunak: hamar euro inguruko kopa eskatu eta aseptu arte jatean datza “aperitibo”.

Gastronomia: zer jan

Pizza eta pasta Italiako gastronomiaren oinarria badira ere, Milanen sortu zen *panettone* ezaguna. Mahaspasa edota fruitu konfitatuak egin ohi den kupula itxurako opila da. Gabonetan jaten den postre tradizionala da, Milan eta inguruan oso ohikoa.

Harritzeko modukoa

Pelazek beti entzun du italiarren kultura gurearen oso antzekoa dela, baina bada beraien izaeran harrিতuta utzi duen zerbait: sexu bien arteko rolak oso markatuta daudela. Pare bat adibide ipintzeagatik, hurrengoak aipatuko lituzke: batetik, orokorrean, gizonetakoek etxeko lanak emakumezkoen zeregina direla uste dutela; bestetik, emakumezkoa, ia gehienetan gizonetakoak ordaintzeko zain egoten dela. Oro har, oso pentsaera zaharkitua daukatela nabaritu du sopoloztarrek. ○



Nor da

Nongoa
Sopelakoa

Adina
25

Zertan dabil
Microsoft enpresan lanean, Global Training programaren bitartez

Ikasketak
Turismon graduatua, Deustuko Unibertsitatean

Noiz arte
6 hilabeterako joan zen, maiatzera arte

Non dago

Lurraldea
Italiako Errepublika (301.230 kilometro koadro)

Hiria
Milan (Lombardia eskualdean, Italia iparraldean, Erroma hiriburutik 476 kilometrora)

Biztanleria
1.345.890 (7.404 biztanle kilometro koadroko)

Erljioa
Batez ere katolikoa

Jai nagusiak
Azaroak 4 eta abenduak 7

Hizkuntza
Italiara

Dirua
Euroa

Eduardo San Andres

Zientzia atala abiatu dugu, Jentilkoba atalagaz txandakatuko dena; hilean behin. Bertan agertuko diren testuak Eduardo San Andres matematika-irakasle sopoloztarrek idatziko ditu; zientziaren eremu luze-zabalean murgilduko gaitu.

Printzea

Ikastetxe jakin bateko ikasgela batean, irakaslea kokoteraino zegoen bere ikasleek sortzen zuten iskanbila jasan behar zuelako. Ikasleek zarataka, jolasten, argudiatzen eta oihukatzen zihardutela, irakasle gixajoa, burumakur eta bere onetik aterata, bere eginkizuna bertan behera uzteko zorian zegoen.


Bat-batean, eta etsipena bere aurpegi mingotsa azaltzen hasi zenean, irakasleak ideia distiratsua eduki zuen: “*eginkizun erraza, baina luzea eta monotonoa aginduko diet. Sikiera denbora apur bat edukiko dut isiltasunean!*”. Eta lehenengo ehun zenbakien batura kalkulatzeko proposatu zien (kalkulagailurik gabe, jakina).

$1 + 2 + 3 + 4 + \dots + 98 + 99 + 100$

Irakaslea poz-pozik geratu zen, itxaropentsu, bere ikasleak denbora dezente isilik eta buru-makur lanean egongo zirelakoan. Baina handik gutxira bere ilusioa bertan behera geratu zen: segundo apur batzuk pasa eta gero, ikasle batek eskua altxatu zuen eta bazeukala erantzuna adierazi zuen. Erantzun zuzena, gainera. Irakaslea zur eta lur geratu zen, eta are gehiago ikasleak zelan egin zuen ikusi zuenean.

Modu honetan kokatu zituen zenbakiak: $1 + 2 + 3 + 4 + \dots + 98 + 99 + 100$
 $100 + 99 + 98 + 97 + \dots + 3 + 2 + 1$

Eta zutabe guztien batura berbera zela antzeman zuen: 101. Ehun zutabe daudenez, 101 bider ehun besterik ez zen egin behar, $101 \times 100 = 10100$. Baina hori bai, modu honetan, zenbaki guztiak birritan batzen ari zen, hortaz, emaitza zati bi egi-tea baino ez zen geratzen, $10100 : 2 = 5050$ erantzun zuzena.



Friedrich Gauss “Printzea”

$1 + 2 + 3 + 4 + \dots + 98 + 99 + 100$
 $100 + 99 + 98 + 97 + \dots + 3 + 2 + 1$

$101 + 101 + 101 + 101 + \dots + 101 + 101 + 101$

«Lehen Hezkuntzako Eskola batean, Alemaniako Brunswick herrian, 1785ean, ikasle miresgarri batek...»

Pasadizo bitxi hau benetan gertatu zen Lehen Hezkuntzako Eskola batean Alemaniako Brunswick herrian 1785. urtean. Protagonista, ikasle miresgarria, Friedrich Gauss zen, eta agian harrigarriena zortzi urte besterik ez zituela da. Urteak igarota, Gauss historiako matematikari

inportanteenetakoa bihurtu zen, eta “matematikariaren printzea” ezizenaz da ezaguna mundu osoan.

Gausen kanpaia

Gauss-en ekarpenetako bat Estatistika arloan aurki daiteke, eta Gauss-en kanpaia edo gaussianak da. Grafika honek erakusten du zelan banatzen den aldagai jakin bat, bai fisikoa, soziala edozein motatakoa (pisua, altuera, soldata, diabetes-tasa,...) populazio batean. Aldagaiaren batez bestekoa M da, hor daude indibiduo gehienak, eta gainontzekoak batez besteko horren inguruan sakabanatuta daude era simetrikotan. Gainera, populazioaren %80 M-d eta M+d balioen artean pilatzen da. ○

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko ditugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.



portu zaharra bar
Portu Zaharra kalea 35
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tf. 94 460 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com



SOLAETXE
Eguneko menua **Jatetxea** Karta
Asteburuko menua Oilasko erretegia
Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



PINTXOAK
OSTIRAL ETA LARUNBATETAN:
RAZIOAK- BOKATAK- PLATER KONBINATUAK
AFARIAK ETA URTEBETETZEAK ENKARGUZ
Tf. 94 656 68 51 Bidebarri 2, ALGORTA



Hanburgesak Ogitartekoak
Sanwichak Plater konbinatuak
SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)
94 430 01 74
www.bodeguillabutron.com



Leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlanda Parkea) Gohierri-Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com

Zure publia
hemen agertzea
gura baduzu
94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz



Menu ederra itsasoari begira
Tf. 94 677 41 33
Txurrua kalea zenbakirik gabe - PLENTZIA
www.restaurantekaieder.com



GOSARIAK
PINTXOAK
KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA
SOPELA
Ripa Kalea 1 (Udaletxe atzean)



HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

Zure taberna edo jatetxea
hemen agertzea
gura baduzu
ipini gugaz harremanetan:
94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

[pintxotan]

Sasoikoen zaporeak

Alkatxofa eta pernila, patata-pureagaz



Sasoiko produktuakaz egitea garrantzitsua da

Erandioko Akarlanda parkean jarraitzen dugu, ezin dugu alde egin Txakoli Motagantik bertoko sasoiko produktuakaz egindako pintxoren bat dastatu barik. Horieta hainbat topa ditzakegu taberna honetako barra gainean, baina gaurkoan alkatxofakaz egindakoa eskaini gura dizugu, oso erraza baita honelakoa gure etxeko sukaldetan egitea.

Hasteko, sasoiko alkatxofa edo orburu bat behar dugu. Ondo garbitu, eta bihotza bakarrik utzi buztanagaz batera, sasoikoa dela ikustarazteko. Ostean, egosi beharko dugu. Bitartean, patata-purea egingo dugu. Horretarako, patatak egosita ditugula, horiek zuritu eta sardexka bategaz ondo txikituko ditugu. Jarraian, gatza, esnea eta oliba-olioa botako diogu

dena ondo nahasteko. Hala, patata-purea eginda eta alkatxofa egosita dugunean, pintxoa muntatzeko ordua da. Orburua da pintxoaren bihotza, beraz, platerxoaren erdian jarriko dugu. Ondoren, inguruan patata-purea jarriko dugu, eta bien gainean pernil zati bat zapore handiagoa emoteko. Horregaz batera, guztiaren gainetik almendra txikitutako botako dizkiogu. Azkenik, platera amaitutzat emoteko, etxeko labean erretako piperrak botatzen duen ura jaso eta karamelatuko dugu. Gero, lortutako likido hori pintxoaren gainera bota eta prest izango dugu moka-dua gozatzeko; on egin! o

Osagaiak: alkatxofa edo orburua, patatak, esnea, gatza, oliba-olioa, pernila eta almendrak.



JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T. 491 14 87 48990 NEGURI
KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T. 460 01 87 48990 GETXO



MONIE JATA 1 48997 GETXO (BIZKAIA) CROISSANTERIE-GETXO.BLOGSPOT.COM 94 460 86 48



JUAN-MARI
Harategia eta txarkuteria
ARTESANA
LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA



KONTXI ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA
Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!
Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra
Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



Taberna Berri
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Apiriluz z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

Torrene 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com
irati
OPARIAK MODA GAZTEA

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Libxerriak
Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

uk zure publizitatea hemen!

94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Azkenean iritsi da udabarria eta eskerrak, goibel eta triste zabilza-eta, landare zimel bat legez. Baina laster atarako zaizkizu lore barriak, koloretsuak eta alaiak.

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Gurasoek auto barria erosi eta zaharra zuri emongo dizute. Pozarren ipiniko zara, harik eta lehen matxura gertatu arte. Orduan ulertuko duzu zergatik emon dizuten musu-truk...

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Apustuak egiteko makinak eta dendak ezagutuko dituzu, baita jokatzeraz zaletu ere. Tentuz ibili, daukazun diru apurra denbora gixian galdtu gura ez baduzu.

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Inguruko herrietako inauteri danak ezagutu dituzu, aste bi daroazu mozorroa kendu barik. Inork ez dizu esan super-heroiaren trajea eroan arren ezin duzula miraririk egin?

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Lagunakaz haserretuko zara, asko berotu eta astakeria galantak botako dizkiezu. Gerora jakingo duzu gaizki ulertua izan dela eta okerrik ez dizutela egin; berandu, ordea!

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Udabarria hastear eta ortua lantzen hasteko garaia da: lurra prestatu, ortuariak landatu eta, hortik aurrera, egunero ureztatu. Ganorazko tomateak eta piperrak lortuko ahal dituzu!

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Gustuko duzu ogia etxean egitea eta aste akabu honetan lagun mordoa joango zaizu bazkaltzera. Bokata ederrak prestatu ahalko dituzu eta pozarren lotuko dira.

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Lagun batek Aste Santurako plan polita proposatuko dizu eta zalantza sortuko zaizu: oporretan joan edo ikasten lotu etxean? Pentsatu ondo, ondorioak latzak izan daitezke-eta.

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Lehenengoz joango zara eskialtzera, sasoiako azken elurtea aprobetxatuz. Aldapa bat jaistean erori eta min hartuko duzu, baina lotsatuta ez duzu ezer esango. Gauetan sufrutuko duzuna!

META



(Irailak 17 urriak 16)
Buru argi izango duzu datozen asteotan eta denek gurako dute zure aholkua. Beraz, lagunak eta senideak lagundu ahalko dituzu, baina nork emongo dizu aholkua zuri?

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
Gida-baimena ateratzeko azterketa egingo duzu. Normalean oso urduri egoten zarenez irakasleak ez dizu aurretik esango eta ez duzu denborarik izango urduritzeko. Baietz gainditu!

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Erabat traketsa zara landareak zaintzen eta guztiak hiltzen zaizkizu. Pentsatu duzu hemendik aurrera plastikozkoak ipintzea? Ez dira horren politak, baina konponbidea izan liteke.

Urrun nahi duenak heldu, ez du behar zaldia lehertu.



Laura Siles 2014

Kopiak
SALGAI
UK aldizkariaren bulegoan




Uribe Kostako aldizkariaren ekoizpena



denborapasa

HITZ GURUTZATUAK



LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuma

1. Ipar Amerikako ekialdeko mendikatea, Ternuatik Alabamaraino luzatzen dena. 2. Zoritxarra, nahigabea. Arrazoi. 3. Testu bati buruz egiten diren azalpen eta ohar-multzoa. Fosforoaren ikur kimikoa. 4. Mapa. Itsas-ugaztuna, balea-hiltzailea ere deitua. 5. Galderetan erabiltzen dugu partikula hau. Alkandorak. 6. Esnearen gainaldean gertatzen den geruza mamitsua. 7. Bihia, garaua. Bizkaieraz, igoa. 8. Etorri aditzaren erroa. Ate, hitz elkartzeetan. Amerizioaren ikur kimikoa. 9. Hirigune bat erditik ez zeharkatzeko, aldirietan barrena doan errepide. 10. Bokal biribila. Eskumenean.

Goitik behera

1. Greziako hego-ekialdeko penintsula. Ema-kume zahar. 2. Plano bereko lerroez mintzatuz, elkar jotzen ez dutenetako bakoitza. 3. Asiaren ipar-mendebaldeko ibai handi eta luzea. Sorta. 4. Fereka, balakua. Bokalik gabeko hesia. 5. Herriko agintari goren. Korrikaren antolatzailea. 6. ... gabe, atertu gabe. Ogi asko du. 7. Hamar, zenbaki erromatarren arabera. Helbururik ez du, nora gabe doa. 8. Indarrez edo bortxaz jarria. Irudioaren ikur kimikoa. 9. Atx!, otx!. Indiako hizkuntza. 10. Pluralean, garaikur mota. ..., zu hor eta ni hemen!

Soluzioa



ez horren gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Nondik atera zuten erdiko argazkia?

> Aurrekoaren erantzuna: Punta Begoñako galeriak, Getxo
> Irabazlea: **Monika Mena**
*deitu telefonoz: 944 911 337

Zein kantarik joko du Sopelan hilaren 16an?

- **Justin Bieberrek**
- **Eñaut Elorrietak**
- **Ruper Ordorikak**

> Aurrekoaren erantzuna: Bere jainkosen bizilekua zaintzea
> Irabazlea: **Ibai Agudo**
*deitu telefonoz: 944 911 337

SARIA **Oinutsik** kontsulta podologikoa
Zubigane 4, SOPELANA. Tel: 94 404 74 20
oinutsik@euskalnet.net

SARIA **berria** **Astakiloen abenturak**
Atxagaren 'Astakiloen abenturak' ipuin bilduma

Bidalari erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



JOSE ANDRES GONZALEZEK UTZITAKO ARGAZKIA

GETXO ATLETISMO TALDEA, 1965-66?

Kanaria Handiko Palman egindako klubun arteko Espainiako txapelketako proban, 1965-66 denboraldian, parte hartu zuten Getxo Atletismoko taldea duzue irudian. Garai hartan, Jose Luis Zelaia (aita) zen entrenatzaile eta Ismael Moral zuzendaritza-taldekoko. Getxo Atletismo taldearentzat sasoi ederra izan hura, eta denboraldi hartan klubun arteko lehiaren (bigarren kategorian; senior) lehenengo postuan lotu zirela dio garaiko prentsak. Jose Andres Gonzalezek azaldu digunez, "Ereagako olinpiadetan" (atletismo eta futbola) ondo zebiltzatenak fitxatzen zituen klubak, eta baita Portugaleteko Santa Mariakoak ere; Fadurako zelaian entrenatzen zuten eta San Inazioan, "uzten zigutenean". ◯

Zutunik: Jose Luis Zelaia (aita; GB), Jauregi, Jose Luis Zelaia (semea), Ismael Moral (GB), Iñaki Osaba, Arrinda, Enrique Tristan, Mendizabal, Uraka, Victor Zelaia, Boni Allende, Luis Onaindia eta Juan Bilbao.

Makurtuta: Santos Leon, Jose Andres Gonzalez, Kiki Begoña, Txutxin Onaindia (GB), Julian Hernandez, Raul Martin, Pedro Angiano, San Juan, Eduardo Ranedo, Dimas Ramos, Jose Julio Martinez, Juan Colino, Jesus Mari Bilbao, Aldai eta Agirregomezkorta.

AMAIA KAIERO > kazetaria eta aurkezlea

“Musika barik ezin naiz bizi, gorra baino nahiago nuke mutua izan...”

Testua: **Iker Rincon** Argazkia: **EITB**



Defini egizu zeure burua berba bitan.

Satelite samarra.

Orain zarena izango ez bazina, zertan gura zenuke jardun?

Munduan zehar bidaiatu eta turismo gida-liburuak idaztea plan ederra litzateke.

Badakazu ohitura txarren bat?

Bat ez, hainbat!

Eta aitor dezakezun bizio bat?

Lo egitea.

Zure umezaroko oroitzapen bat?

Udako egun luzeak, lagunekin, zer ordu den jakin barik, bizikletarekin Gatican gora eta behera... eta *Nocilla* bokata, noski!

Zein barri gura zenuke irakurri biharko egunkarian?

Politikari ustel guztiak Antartidara deportatu dituztela.

Euskal Herriko zure txoko kutuna? Zergatik?

Barrika inguruko itsaslabarra. Ezinezkoa da begirada bakar batean paisaia osorik hartzea.

Eguna ala gaua? Zergatik?

Goizez kosta egiten zait %100ean egotea. Tarte bakoitzak bere alde onak ditu, eta gaua oso gustuko dut.

Miresten duzun historiako pertsonaiaren bat?

Asko. Berdintasunaren alde egin duten emakumeak, esaterako.

Zerk ematen dizu beldurra?

Zahartzaroan nire burua jagoteko kapaz ez izateak.

Azken aldian egin duzun erokeriarik handiena?

Konturatu barik egin nuen, baina isuna jasotzeko modukoa denez, hobe azalpen gehiagorik ez emotea... ○

LABURREAN—Gaurkoan Amaia Kaiero (Gatika, 1984) etorri zaigu gurera. Kazetari honek, ikus-entzunezko komunikazioa ikasi zuen, eta EITBn abiatu zuen bere ibilbide profesionala. Hasiara batean, Canal Vascoren albistegiak aurkeztari ekin zion; ondoren, 2008an, ETB3ko *Gauberi* albistegian jardun zuen aurkezle. Orain, barriz, eguerdiko *Gaur egun* albistegiak aurkezten topa dezakegu Xabier Usabiagagaz batera. Musika oso atsegin du, eta aitortu duenez, nahiago luke mutua izan gorra baino.

HAMLETT
ARTEDRAMA - LE PETIT THÉÂTRE DE PAIN - DEJABU PANPIN LABORATEGIA
Zuzendaria: Ximun Fuchs


Aktoreak:
Ander Lipus
Ainara Gurrutxaga
Manex Fuchs
Maika Etxekopar
Iñaki Ziarrusta
Miren Tirapu
Urko Redondo

E!
Erandio
Elizateko Udala

Martxoak 20 (20:00etan)
Erandioko azoka zaharrean
(sarrera librea)

(San Jeronimo kalea 13)

Kartela: Lontxo Yriarte



Irudien eta hizkien hizkuntzetan oinarrituta, ArgIHizkiak lehiaketa antolatu dugu Uribe Kostan. ArgIHizkiak testu laburren euskarazko literatura-lehiaketa da.

'Fotografia' edo 'argazki' berbek "argiarekin marraztea edo idaztea" dute jatorrizko esangura. Horrenbestez, zuen begiradek argien eta hizkien hizkuntzekin jolastea proposatzen dizuegu.

ARGIHIZKIAK

Argazkietan oinarritutako TESTU LABURREN II. LEHIAKETA

Erakusketa Sopelan

Martxoaren 17tik 30era kultur etxean

